

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 6621** *23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira.*

I

Joan den martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo zuen COVID-19ak ekarritakoa. Harrezkero, herrialde askok presaka erantzun behar izan dute, pandemia hori azkar hedatzen ari zela ikusita. Espainiak ere bai, eta hainbat neurri sustatu ditu pandemiak herrialdeko ekoizpen-sektore guztietan eta gizarte-esparruan edukiko duen eragin ekonomikoa arintzeko asmoarekin; gizarte-esparruan, batez ere, enplegua babesteko, familia-unitateetan errentarik ez galtzeko eta herritar kalteberenei arreta emateko arloetan sustatu ditu eragina arintzeko neurriak.

Beste alde batetik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera ezarri zen COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, eta, besteak beste, zirkulazio-askatasunari murrizketa zorrotzak ezarri zitzaizkion; murrizketa horiek zuzeneko ondorioak ekarri dizkiete langileei (autonomoei eta besteren konturakoei), enpresei eta herritarrei.

Ezohiko egoera honetan, politika energetikoaren ardatza, kontuan hartuta egungo trantsizio energetikoan politika horrek zer xede eta aplikazio-eremu dituen, neurri batzuk bultzatzea izan behar da eta haien bidez ekonomia suspertzea, Estatuaren eta Europar Batasunaren finantza-baliabideak mobilizatzea, enplegu iraunkorra sortzea eta aurrekontu-politiken, diru-politiken, finantza-politiken eta politika estrukturalen artean behar den elkarlana izatea.

Osasun-larrialdi hau eta ekonomian daukan eragin handia gogoan hartuta, egungo klima-egoera aztertu behar dugu, asmoa Espainiako sistema energetikoa aldatu eta kliman eraginik ez daukan beste bat sortzea baita, ikatzik ez darabilen bat, bidezko gizarte-eragina daukana eta herritarrik ahulenen onurarako dena. Horren ildotik, oraintsu «Green Deal» Europako Itun Berdea aurkeztu zen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen 2019ko Konferentzian (Klimaren Goi Bilkura - COP 25). Itun hori Europar Batasunak datozen urteetan klimaren inguruan izango duen ibilbide-orria da; ekonomiaren sektore guztiak jorratzen ditu, batez ere garraioa, energia, nekazaritza, eraikinak eta industriak (siderurgia, zementua, IKTak, ehunak eta produktu kimikoak).

COVID-19ak ekonomian eta sistema energetikoan izan dituen ondorioek ez dute ezertan eragotzi ekonomiaren deskarbonizazioa; aitzitik, trantsizio energetikoa azkartzeko aukera ematen dute; izan ere, energia berriztagarrietan, efizientzia energetikoan eta ekoizpen-prozesu berrietan egiten diren inbertsioek, jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeaz gainera, palanka berdearena egingo dute Espainiako ekonomiaren susperraldian.

Krisiari aurre egiteko deskarbonizazioaren eta iraunkortasunaren agenda bultzatu beharraz adostasuna dago gaur egun Europar Batasunean. Eta Espainia prozesu horretan buruzagi izateko moduan egongo da, baldin eta gure herrialdeak hainbat arlotan (energia berriztagarrien balio-kate industrialean, efizientzia energetikoan eta digitalizazioan, besteak beste) daukan lehiarako abantailak erabiltzen baditugu.

Gainera, elektrizitateak funtsezko eragina dauka ekonomia deskarbonizatzeko prozesuan, eta, horregatik, ezinbestekoa da sistema elektrikoaren oreka eta likidezia bermatzea, aspaldion arrazoi koituntural batzuen mehatxupean daude eta, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz eskarian eta prezioetan gertatu diren bat-bateko jaitsieren mehatxupean besteak beste.

Horregatik, ahalik azkarren ezarri behar dira neurri arautzaile batzuk trantsizio energetikoaren prozesuan agertu diren oztopoak gainditzeko eta inbertsioak erakartzeko

gauza den esparru tinkoa edukitzeko, ekonomia suspertzeko prozesua eta ekonomiaren elektrifikazioa bultzatzeko, eta energia berriztagarriak modu masiboan erabiltzen hasteko, aldi berean aintzat hartuta sistema elektrikoaren jasangarritasunaren printzipioa.

Arau honetako neurrien helburua trantsizio energetiko garbia, bidezkoa, fidagarria eta ekonomiaren aldetik lehiakorra dena bermatzea da; hori guztia lortzea oso garrantzitsua izango da alarma-egoera amaitu ondoko egoeran. Beraz, ezinbestekoa dugu berehala ekitea jarraian azalduko diren neurriei. Neurriok modu sistematikoan eta egoki azaldu nahian, errege lege-dekretu honen bidez arautzen diren gaiak lau multzo handitan zatitu dira; horien erregulazioa I. titulutik III. titulura eta amaierako azken xedapenetan ezartzen da.

Beste alde batetik, IV. tituluan, zenbait arlotan jarduera ekonomikoa biziberritzeko eta lanpostuak sortzeko neurri batzuk arautzen dira.

II

Errege lege-dekretu honek honako egitura hau dauka: hitzaurrea, xedapenak (lau titulu, hamabi artikulua, sei xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta bederatzi azken xedapen) eta eranskin bat.

Lehen multzoan, energia berriztagarriak modu antolatuan garatzeko eta bultzatzeko neurriak ezartzen dira. Besteak beste, sarbidea eta konexioa arautzen dira, energia berriztagarrien instalazioak sare elektrikoarekin konektatzeko eskaerak antolatzeko; izan ere, eskaera horiek asko dira eta sarearen hornidura-ahalmena agortzen ari dira, eta hori arriskutsua da. Hain zuzen ere, baliabide urria da, eta energia berriztagarri berrien hedapena mugatzen eta baldintzatzen du.

Horrenbestez, 1. artikuluan arautzen da zer baldintza bete behar diren elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sareekiko sarbidea eta konexioa mantentzeko, proiektuen bideragarritasun teknikoa eta sendotasuna kontuan hartuz eta horiek baimentzeko eta gauzatzeko behar diren mugarri administratibo guztiak betetzen diren heinean.

Hori dela eta, mugarri administratiboak betetzeko epealdiak ezartzeko, kontuan eduki dira baimenaren antzintasuna, batetik, eta dena delako izapide administratiboa nolakoa den, bestetik. Horren arabera, sarbide-baimenak lau multzotan banatu dira: 24/2013 Legea (abenduaren 26koa, sektore elektrikoarena) indarrean jarri aurretik emandakoak; lege hori indarrean jarri zenetik 2017ko abenduaren 31ra arte emandakoak; 2018ko urtarrilaren 1etik errege lege-dekretu hau indarrean jarri arte emandakoak; azkenik, arau hau indarrean jarri ondoren ematen direnak.

Erabaki da lehen multzoko baimenatarako ez ezartzea inolako mugarri administratiborik, horiek nola iraungitzen diren araututa baitago jada abenduaren 26ko 24/2013 Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean.

Bigarren multzoko baimenak gaur egun inon berariaz eta modu argian arautu gabe dauden baimen zaharrenak dira. Baimen horietarako, lehen epealdia zorrotzagoa duten mugarriak ezartzen dira, horrela ia berehala berreskuratu ahal izango baita gutxieneko heldutasunik ez daukaten proiektuen ahalmena, baina, aldi berean, proiektu irmo eta bideragarrien izapidetzea eragotzi gabe. Hain zuzen ere, arauan ezartzen da baimen horien guztirako indarraldia gehienez bost urtekoa dela errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 33.8 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

Hirugarren eta laugarren multzoetako baimenatarako, mugarri eta epealdi berak ezartzen dira; nolahi ere, epealdiak ez dira une berean hasiko: errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik emandako baimenen kasuan, egun horretan hasiko da epealdia; egun horren ondoren ematen diren baimenen kasuan, baimena lortzen den egunean hasiko da.

Mugarriak ez betetzeak berekin ekarriko du baimena berez iraungitzea eta berehala exekutatzeko garraio eta banaketako sareetara konektatzeko eskaera izapidetzeko aurkeztutako berme ekonomikoak, honako kasu honetan izan ezik: ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiten ez denean sustatzaileari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik.

Erregulazio hau lortu nahi den xedearen arabera eta neurrikoa da, eta kontuan hartzen du multzo bakoitzeko baimenek beren ezaugarriak dituztela. Hain zuzen ere, bidezkoa da epealdia ez izatea bera baimena 2013. urtearen amaieran eman denean —sei urte baino gehiago joan baitira harrezkero— eta arau hau indarrean ipini baino egun batzuk lehenago eman denean.

Nolanahi ere, kasu guztietan titularrei aukera ematen zaie araua indarrean jartzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen baimenei uko egiteko; uko eginez gero, aurkeztutako berme ekonomikoak itzuliko zaizkie.

Erregulazio honen bidez, hainbat proiektu bideragarri ez atzeratzea edo ez gelditzea lortuko da, eta, batez ere, ez eragozte zentralak ixteko prozesuetarako inbertsio berriak bultzatzea.

Halaber, multzo honetan norgehiagokako mekanismo berri bat ezartzen da energia berriztagarrien proiektuetarako; horren bidez, teknologia horien ordainsarien esparrua finkoa eta iraunkorra izango da. Hain zuzen ere, hemendik aurrera egiten diren enkanteek hiru helburu beteko dituzte: ekonomiaren deskarbonizazioa bultzatuko dute, inbertsioak sustatuko dituzte eta energia elektrikoaren kostua murriztuko dute. Azken bi helburuak interes berezikoak dira COVID-19ak ekarri duen egoera ekonomikoan.

Gobernuari ahalmena ematen zaio beste ordainsari-esparru bat ezartzeko, berariazko ordainsari-araubidearen alternatiba modura, energia elektrikoa energia-iturri berriztagarrien bidez sortzeko eraikitzen diren instalazio berrien diru-sarreraren eta finantzaketa-iturrien aurreikusgarritasuna eta egonkortasuna bultzatzeko asmoarekin, bi ezaugarriok ezinbestekoak baitira energia berriztagarriko proiektu berriak sustatzeko Espainiak arlo honetan bere gain hartutako Batasunaren barruko eta nazioarteko konpromisoak betetzeko behar den azkartasunarekin.

Horrez gainera, ordainsari-esparru berri hori oso baliagarria da kontsumitzaileei zuzenean helarazteko ekoizpen-kostu urriko iturri berriztagarriko potentzia berria sistema elektrikoan sartzeak berekin dakarren aurrezpena. Horretarako, ordainsari-esparru horren funtsa lehia-konkurrentzia izango da, eta eskaintzak egiteko baliatuko den aldagaia, energiaren ordainsari-prezioa.

Energia ekoizteko parkea orekatuta egotea nahi dugu, eta kudeatu ezineko energia-iturri berriztagarrien teknologia ahalik gehien zabaltzea, sistema elektrikoaren egonkortasuna arriskuan ipini gabe, eta energia-iturri berriztagarriak zabaltzeko bidea ondo programatu nahi dugu. Horregatik, lehia-konkurrentziako prozeduren deialdiak egiten direnean, ardatza kostuen efizientzia izan beharko da, eta bereizketak egin ahal izango dira energia sortzeko teknologien artean haien ezaugarrien arabera (ezaugarri teknikoak, tamaina, kudeagarritasuna, kokapena, teknologiaren heldutasuna, eta karbonorik gabeko ekonomia baterantz jotzea bermatzen duten beste irizpide batzuk). Halaber, energia berriztagarrien erkidegoen, instalazio txikien eta erakusketa-proiektuen ezaugarri bereziak kontuan hartzeko mekanismoak ezarri ahal izango dira ordainsari-esparru berrian.

Europar Batasunean, klimaren inguruko politiken barruan, bi epemugari begira jarri dira helburuak energia berriztagarrien eremuan: 2020. eta 2030. urteak. Epemuga bakoitzerako, helburu zehatzak ezarri dira honako esparru hauetan:

– Klima eta Energia 2020; hor, EBk klimaren eta energiaren arloetan 2020rako bere buruari ezarri dizkion helburuak bermatzen dituen legedi loteslea biltzen da. Ezartzen da energia berriztagarriak % 20 izan behar direla 2020rako.

– Energia eta Klima 2030; esparru horretan, EB osoan 2021-2030eko aldian lortu beharreko xede eta helburu politikoak ezartzen dira. Estatu bakoitzak 2021-2030eko aldirako Energia eta Klimako Plan Nazional Integratua aurkeztu behar du; plan horretan, energia berriztagarrien arloan 2022rako, 2025erako, 2027rako eta 2030erako lortu beharreko tarteko helburuak zehaztu behar dira.

Hurrengo EKPNI 2021-2030ek ezartzen du 2030. urterako energia-iturri berriztagarrietakoa izan behar dela Espainian kontsumitzen den energiaren % 42. Gainera, plan horrek helburu horrekin bat datozen tarteko helburu batzuk ezartzen ditu energia berriztagarrien ehunekoari dagokionez: % 24 2022. urterako eta % 30 2025. urterako.

Horrenbestez, planean ezartzen diren datuen arabera, elektrizitate-ekoizpen berriztagarria gutxi gorabehera 2.200 kilotoi ptb gehitu behar da 2020-2022ko aldian eta gutxi gorabehera 3.300 kilotoi ptb 2022-2025eko aldian; horretarako, azkar gehitu beharko da energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten ekoizpen-instalazioen potentzia. 2020-2022ko aldian, energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioek 12.000 MW gehiago sortu beharko dituzte gutxi gorabehera, eta, 2020-2025eko aldian, 29.000 MW gehiago gutxi gorabehera, eta kopuru horretatik 25.000 MW inguru teknologia eolikoaz eta fotovoltaiakoaz sortu beharko dira.

Beste alde batetik, azkenaldi honetan, errege lege-dekretu honetan arautzen diren antzeko lehia-konkurrentziako mekanismoak ezarri dira gure inguruko herrialdeetan, eta emaitzak onak izan dira: energia-unitatearen prezioa elektrizitatearen merkatuko prezioak baino askoz merkeagoa da. Nahitaezkoa da aurrezpen ekonomiko hori kontsumitzaile guztiei —eta, zehazki, industriari— ahalik azkarren helaraztea, Espainiako ekonomiak eragozpenik eduki ez dezan lehiatzeko orduan.

Abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 14. artikuluan ezartzen duenez, Gobernuak, salbuespen gisa, ordainsari-araubide espezifiko bat ezar dezake energia-iturri berriztagarrien bidezko produkzioa sustatzeko, merkatuan energia salduz lortutako diru-sarrerei ordainsari bat gehituz. Ordainsari-araubide horren oinarri honako premisa hau da: iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioen ekoizpen-kostua sortzen duten energiaren salmentaren bidez lortzen den diru-sarrera baino gehiago da. Nolanahi ere, garapen teknologikoari esker instalazio batzuetan energia ekoizteko kostua merkatuko prezioa baino gutxiago da. Halakoetan, gaur egun instalazio horietarako indarrean dagoen ordainsari-araubideak ez du aukerarik ematen kontsumitzaileei helarazteko ekoizpen-kosten murrizketa.

Horregatik, ezinbestekoa da lege-mailako araua ezartzea, Gobernuak berriaz gaituko duena energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten teknologiei laguntzeko beste sistema batzuk ezartzeko, teknologia horietan gertatu den bilakaera teknologikoarekin eta ekonomikoarekin bat etorriko dena eta aurrezpenak zuzenean elektrizitate-kontsumitzaileei helaraziko dizkiena.

EKPNI 2021-2030ek zer helburu ezartzen dituen ikusita eta gogoan hartuta energia berriztagarrien teknologiek heldutasunera iristeko denbora luzea behar izaten dutela eta teknologia horien kostuak jaitsi egin direla, agerikoa da ahalik azkarren ezarri behar direla mekanismo berriak energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioek ordainsari-esparru iraunkorra eta aurrez ikusteko modukoa edukitzeko, instalazio horiek gehitu daitezzen.

Lehen multzoko xedapen batzuek helburu hau daukate: energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioak eraikitzeko, handitzeko, aldatzeko eta ustiatzeko baimenak lortzeko prozeduren izapideak hobetzea eta erraztea, abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak (energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak eta energia elektrikoaren garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta horniketa- jarduerak arautzen dituenak) VII. tituluaren arautzen duenarekin bat etorritik.

Sarbidearen eta konexioaren inguruko neurriei eta energia berriztagarrien ordainsari-esparruko neurriei esker, esan bezala, inbertsio gehiago egin ahal izango dira instalazio berrietan, eta, horrela, jarduera ekonomikoa suspertuko da eta lanpostuak sortuko dira balio-kate industrialean.

Erreforma honetan honako kontzeptu hau ere txertatzen da: funtsezkoa ez den aldaketa abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.2 artikuluekin bat etorritik administrazio-baimena lortu duten ekoizpen-instalazioetan. Hain zuzen ere, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren ezaugarriekin bat datozen instalazioek ustiatzeko baimena baino ez dute beharko, aurretik instalazioetan eta bertako ekipoetan ezarritako segurtasun-baldintzak betez gero. Gainera, eskatzen eta ematen diren sarbide-baimenei irimotasuna eman nahian, sarbide-baimena eta konexio-baimena eskatuta edo emanda dauzkan ekoizpen-instalazioa bera denez zehazteko irizpideak ezartzen dira.

III

Bigarren multzoko neurrien helburua trantsizio energetikoan garrantzi handikoak izango diren negozio-eredu berriak sustatzea da; gainera, eredu berri horiei esker inbertsioak antolatu eta gauzatu ahal izango dira, eta lanpostu iraunkorrak eta kalitatekoak sortu ahal izango dira.

Neurri horiek ezartzeko, Sektore Elektriakoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legea aldatu behar da, eragozpen administratiboak ezabatzeko eta, aldi berean, beste esparru juridiko bat plantan ezartzeko, trantsizio energetikoan jarduera ekonomikoa, sektorearen lehiakortasuna, enplegua, digitalizazioa, deskarbonizazioa eta klima-neutraltasuna bultzatuko dituen. Horrenbestez, honako gai hauek arautzen dituzten xedapenak ematen dira: energia-biltegitratzea; agregatzaile independenteak; energia berriztagarrien erkidegoak; hibridazioa; ahalmen handiko birkarga-azpiegiturak (250kW-tik gorakoak); I+G+b proiektuen baimen erraztua; saiakuntza-banku arautzaileak; sare-instalazio mugikorren baimen erraztua; baimendutako sarbide-kapazitatearen erabileraren optimizazioa.

Kudeatu ezineko energia-iturri berriztagarrien instalazioak erruz ugarituta eta zentral termikoak itxita, gero eta zailagoa da sistema kudeatzea, eta, ondorioz, arriskuan gerta liteke horniduraren segurtasuna. Horregatik, ahalik azkarren txertatu behar da biltegitratzearen figura legedian, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 Zuzentarauak ezartzen duenaren ildotik (2019/944 Zuzentaria, Batasuneko elektrizitatearen barne-merkaturako arau erkideei buruzkoa eta honako hauek aldatzen dituena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentaria eta 2019/943 (EB) Erregelamendua, 2019ko ekainaren 5ekoa, Batasuneko elektrizitatearen barne-merkatuari buruzkoa). 4. artikulua lehen apartatuan, aldaketa bat egiten zaio abenduaren 26ko 24/2013 Legeari, energia biltegitratzeko instalazioen definizioa sartzeko. Instalazio horiek sistema elektrikoaren zenbait subjektuen titulartasunekoak izan ahal izango dira. Definizio horrek ez du ezertan ukitzen sistema horietako punpaketen titulartasuna (17/2013 Legea, urriaren 29koa, Uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistema elektrikoetan hornidura bermatzekoa eta lehia gehitzekoa).

Beste alde batetik, sarbide eta konexiorako baimenen erabilerari dagokionez, eta energia berriztagarrien erabilera eta kudeaketa gehitzeko asmoarekin, bete beharrekoak baitira 2021-2030eko aldirako Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuan (EKPNI 2021-2030) ezartzen diren helburuak, ezinbestekoa da ahalik azkarren maximizatzea dagoeneko badauden sareen erabilera eta minimizatzea ingurumenak jasaten duen eragina.

Horretarako, 4. artikuluan hibridazioa ahalbidetzen da, hots, elektrizitatea sortzeko teknologia desberdinak erabiltzen dituzten zenbait instalazio sareko puntu berean konektatzea teknikaren aldetik bideragarria izanez gero. Helburu berarekin, azken xedapenetako lehenengoaren bosgarren apartatuan aldatu egiten da abenduaren 26ko 24/2013 Legea, baimena eman ahal izateko instalatutako potentzia emandako sarbide eta konexioko potentzia baino handiagoa duten instalazioei; baimena emateko, betiere, energia sareratzeko mugak bete beharko dira instalazioaren jardunean. Horrela, arrazoirik gabeko arau-murrizketa bat ezabatzen da; izan ere, murrizketa horrek eragotzi egiten zuen instalazioak modu efizientean diseinatzea eta energia-iturri berriztagarriaren aprobetxamendua izan zitekeen handiena izatea. Horren ildotik, baimenen araubideari dagokionez, ekoizpen-instalazioak aipatzen diren guztietan ulertu behar da testua sortzaileen titulartasuneko instalazioez zein sistema elektrikoaren beste subjektu batzuen titulartasunekoez ari dela. Beraz, aipatu berri diren bi neurriek aukera ematen dute une jakin batean sarera bideratu ahal dena baino potentzia handiagoa instalatzeko, bai teknologien hibridazioa erabiliz, bai ekoizpen-teknologia bakarra erabiliz. Horrenbestez, sortzen den energia unean bertan erabili beharrik ez dagoenez, energiaren hornidura optimizatu ahal izango da, eta horrela hobeto aprobetxatu ahal izango da egungo sarea, hobeto erabili ahal izango dira energia-iturri berriztagarriak, eta ingurumen-sinergia handiagoak lortuko dira.

Bi kasuetan neurri horien bidez lortuko da energia berriztagarriko proiektu asko azkar eta eraginkortasunarekin garatzea, dagoeneko badagoen sarea optimizatzea, kontsumitzaileek kostu gutxiago jasatea, sarbide-eskaera berrien gaineko presioa arintzea eta jarduera industrial eta enplegua berehala suspertzea. Horrez gainera, aplikatzen den arau-esparruari segurtasun juridikoa emango zaio.

Gainera, lehen aipatutako Batasuneko barne-merkatuari buruzko zuzentarauan eta erregelamenduan ezartzen diren figura berrien artean agregazioaren eta agregatzaile independentearen definizioa dago; agregatzaile independentea agregazio-zerbitzuak ematen dituen subjektu bat da, bezeroen hornidurarekin loturarik ez daukana, eta agregazioa, berriz, elektrizitate-kontsumitzaile batzuen eskaria konbinatzea, edo sortzaile batzuen ekoizpena konbinatzea, edozein elektrizitate-merkatutan saltzeko, erosteko edo enkantean ateratzeko. Figura horrek dinamismo handiagoa txertatuko dio merkatuari, subjektu ugari sartzen ari direla kontuan hartuta. Azken xedapenetako lehenaren lehen, bigarren eta laugarren apartatuetan, figura horiek garatzeko behar diren aldaketak egiten dira.

Beste alde batetik, agregazioaren barruan sartzen diren egiteko batzuk (hots, agregatzaile independenteek egin ditzaketenak) jasota zeuden 2012/27 Zuzentarauan, energia-efizientziari buruzkoan; zehazki, 15.8 artikuluan; hona zer dioen: «Batasuneko estatuak adi egongo dira energiaren arloa arautzen duten agintaritzak nazionalak bide eman dezaten handizkako eta txikizkako merkatuetan eskariaren aldearen baliabideek —hala nola eskariaren erantzunak— eskaintzaren aldearekin parte hartzeko».

Horren ildotik, Europar Batzordeak 2018/2255 arau-haustearen inguruko irizpen arrazoituaren 5. puntuan aipatzen du Espainiako Erresumak oker aplikatzen duela energia-efizientziari buruzko 2012/27 Zuzentaruaren 15.8 artikulua. Horren ondorioz, presazkotzat jotzen da Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzea agregazioaren definizioa eta agregatzaile independentearen figura, horrela eskariaren erantzun dinamikoa bultzatuko baita eta egintzat jo ahal izango baita 2012/27 Zuzentaruaren 15.8 artikulua transposizioa.

Gainera, Europar Batasunaren zuzentaruetatik datozen figura berriak direla eta, energia berriztagarrien erkidegoen definizioa ezartzen da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentaruak (iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoak) horiek aurreikusten dituen moduan. Zuzentaru horren arabera, figura horren helburua herritarrek eta tokiko agintaritzek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea da; horri esker, tokian-tokian energia horiek hobeto onartuko dituzte eta, gainera, herritarrek gehiago parte hartuko dute trantsizio energetikoan.

Beste alde batetik, garraio-sareak nolabaiteko malgutasuna eduki dezan eta hura sare planifikatua izateak ekonomiaren elektrifikazioaren hedapena ez eragozteko, baimena ematen da, salbuespen gisa, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, garraio-sarearen plangintzan txertatu ahal izateko ekonomiaren elektrifikaziorako eta trantsizio energetikorako erabakigarriak izan litezkeela egiaztatuta dagoen instalazio batzuk.

Gainera, Gobernuari ahalmena ematen zaio prozedura berezi bat arautu dezan xede nagusitzat I+G+b duten instalazioak baimentzeko eta, horrela, kontuan izateko berez zehaztugabeak diren eta garatzeko eta jarduteko epe zehatzak dituzten proiektu pilotuen eta erakusketa-proiektuen berezitasunak. Egungo egoeran, teknologia aldatzen ari dela, horrelako proiektuek aukera teknologikoak, energetikoak eta industrialak sortzen dituzte hainbat arlotan (energia biltegitratzea, itsas energiak eta sareen kudeaketa, besteak beste), eta eragile estrategikoak dira ekonomia bultzatzeko, bai epe laburrean, bai epe ertainean.

I+G+b arlotik irten gabe, arau honen bidez ahalmena ematen zaio Gobernuari, gainera, saiakuntza-banku arautzaileak ezarri ahal izateko. Saiakuntza-banku (edo «sandbox arautzaile») horien bidez berrikuntzak, salbuespenak edo babes-klausulak sartu ahal izango dira arautegian sektore elektrikoaren eremuan ikerkuntza eta berrikuntza sustatzeko asmoarekin.

4. artikuluan, halaber, erraztu egiten da honako instalazio hauei baimena emateko prozedura: garraio eta banaketako sarera konektatzen diren instalazio mugikorak, beren

ezaugarrien eta berezitasunaren arabera baimena lortzeko prozedura orokorra bete behar ez dutenak. Halako instalazio mugikorrek (transformadoreak, erreaktantiak eta potentzia-elektronikan oinarritutako beste elementu batzuk) geroz eta garrantzitsuagoak izango dira trantsizio energetikoan, aukera ematen baitute energia-iturri berriztagarriak maximizatzeko sistema elektrikoan; izan ere, sistema elektrikoa etengabe aldatzen ari da eta, beraz, malgutasuna eta azkartasuna ekarriko dituzten elementu mugikorrek behar dira. Orobat, matxurak konpondu behar direnean (egoera meteorologiko txarraren eraginez, esaterako), gerta liteke aldi batez posizio mugikorrek instalatu behar izatea, eta horietarako ere halako baimena erabil daiteke.

Beste alde batetik, ibilgailuen elektrifikaziorako eragozpenetako bat da ez dagoela behar beste birkarga-estazio hiriarteko bideetan, gaitasun handiko errepideetan hiriguneetatik urrun dauden tokietan batez ere. Horregatik, edonorako ibilgailu elektriko bat (hiri barruan zein kanpoan erabil daitekeena) erosteko asmotan ibiltzen diren herritarrek «distantziaren antsietatea» edo «autonomiaren antsietatea» jasaten dute, eta, azkenean, halako ibilgailua eskuratzeko gogoia kentzen zaie. Potentzia handiko birkarga-estazioen sare bat hedatzeko erraztasunak eman nahian, estazio horiek baimentzeko beharra ezartzen da arau honetan, eta gaitasun handiko birkarga-azpiegiturak (250 kW-tik gorakoak) onura publikokotzat jotzen dira. Neurri hori behin eta berriro eskatu du automobil elektrikoaren sektoreak, eta neurria hartzeko arrazoia izan da luzera ertain edo handiko linea elektrikoak eraiki behar direla hiriarteko bideetako birkarga-puntuak hornitzeko.

IV

Hirugarren multzoan, energia-efizientzia sustatzeko neurriak arautzen dira. Zehazki, urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatzen da (hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak), 2030era arte luzatzeko energia-efizientziako betebeharrak nazionalaren indarraldia. Hain zuzen ere, betebeharreko subjektu bakoitzaren aurrezpen-betebeharrak kalkulatzeko prozedura egokitzen da, sistema gardenagoa izan dadin eta betebeharreko subjektuentzat errazagoa izan dadin alde aurretik jakitea zenbat aurreztu behar duten; horrez gainera, kudeaketa malguagoa izatea ere lortu nahi da, salmentetan aldaketaren bat gertatzen den bakoitzean ez kalkulatu behar izateko berriro zenbatekoa izan behar den betebeharreko subjektu bakoitzaren ekarpena. Betebeharraren indarraldia luzatzeak ez du ezertan eragotziko noizbait mekanismo osagarri bat garatzea aurrezpen-betebeharrak energia-efizientziako proiektuak zuzenean gauzatzuz eta behar diren energia-aurrezpenaren ziurtagiriak aurkeztuz bete ahal izateko balio duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentarauak (2012ko urriaren 25ekoa, energia-efizientziari buruzkoa) 2009/125/EE eta 2010/30/EE zuzentarauak aldatu zituen eta 2004/8/EE eta 2006/32/EE zuzentarauak indargabetu zituen. Beraren bidez, Batasunaren barruan energia-efizientzia sustatzeko esparru bateratu bat sortu zen eta ekintza zehatzak ezarri ziren 2014-2020ko aldian energia-aurrezpen metatu handia lortzeko.

2012/27/EB Zuzentaru horren 7. artikulua arabera, Batasuneko estatu bakoitzak frogatu behar zuen 2014-2020ko aldian energia-aurrezpen metatu jakin bat lortu zuela. Beste alde batetik, zuzentaruaren 7. artikuluan xedatzen zen Batasuneko estatu bakoitzak energia-efizientziako betebeharren sistema bat ezarriko zuela eta beraren arabera energia-banatzailak eta txikizkako energia-merkaturatzailak aurrezpen-helburua bete behar zutelako 2020. urterako, 2014. urtetik aurrera urteko energia-salmenten ehuneko 1,5 aurreztuz urtero.

Gainera, zuzentaru horren 20. artikulua aukera eman zien Batasuneko estatuei Energia Efizientziaren Funtz Nazionala sortzeko, energia-efizientziarako ekimen nazionalen osagarri.

Beraz, urriaren 15eko 18/2014 Legeak (hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak) energia-efizientziako betebeharren sistema nazionala sortu zuen. Haren arabera, energia aurrezteko urteko kuota bat ezartzen zaie, aurrezpen-betebeharra izenekoa, gasa eta elektrizitatea merkaturatzen dituzten

enpresei, petrolio-produktuen handizkako operadoreei eta petrolioaren gas likidotuen handizkako operadoreei (aurrerantzean, betebeharrak behartutako subjektu esango diegu).

Sistema hori ezarrita, urtean-urtean ministro-agindu baten bidez ezartzen dira urteko aurrezpen-helburua, betebeharrak subjektuen arteko banaketa-ehunekoak, horien emaitzako aurrezpen-kuotak edo aurrezpen-betebeharrak eta haien finantza-baliokideak.

Kontuan eduki behar da 18/2014 Legearen 69. artikulua arabera energia-efizientziako betebeharraren sistema nazionalaren indarraldia 2020ko abenduaren 31n amaituko dela eta 2012/27/EB Zuzentaraua 2018/2002 (EB) Zuzentzarauaren bidez aldatu dela, energia-efizientziako betebeharraren sistema nazionalaren irismena 2021eko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arte luzatzeko, Batasunak energia-efizientziaren arloan 2030erako ezarritako helburuak lortu ahal izateko eta kontsumitzaileak Energiaren Batasunaren ardatzean egoteko konpromisoa betetzeko. Horregatik guztiatik, energia-efizientziako betebeharraren sistema nazionalaren indarraldia luzatu behar da. Hori dela eta, ezinbestekoa da ahalik azkarren luzatzea sistemaren indarraldia, zeren eta 2018/2002 (EB) Zuzentzarauak 2. artikuluan adierazten baitu Batasuneko estatuek beranduenez 2020ko ekainaren 25erako onartuta eduki behar dituztela bertan ezartzen dena betetzeko behar diren xedapen guztiak (legezkoak, erregelamenduzkoak eta administratiboak). Hori indarrean jarrita, 7. artikulua eta 7 bis artikulua aldaketek eragina edukiko dute energia aurrezteko 2014-2020ko aldiko betebeharraren aplikazioan.

Gainera, betebeharrak subjektu bakoitzaren aurrezpen-betebeharrak kalkulatzeko prozedura egokitzen da, sistema gardenagoa izan dadin eta subjektuentzat errazagoa izan dadin alde aurretik jakitea zenbat aurreztu behar duten; horrez gainera, kudeaketa malguagoa izatea ere lortu nahi da egokitzapen horren bidez, salmentetan aldaketaren bat gertatzen den bakoitzean kalkulatu behar ez izateko berriro zenbatekoa izan behar den subjektu bakoitzaren ekarpena.

V

Azkenik, laugarren multzoan, errege lege-dekretu honen azken atalean, zenbait neurri sektorial ezartzen dira errege lege-dekretuaren artikuluetan ezartzen den erregulazioa osatzeko. Neurri horietan aipagarrienak dira helburu nagusitzat COVID-19aren krisiak energiaren merkatuan aritzen diren subjektuei ekarri dizkien ondorio negatiboak arintzea dutenak, batetik, eta sistema elektrikoaren oreka eta likidezia bermatzeko neurriak, bestetik (sistemaren oreka eta likidezia ezinbestekoak dira jarduerak irauteko eta inbertsio berriak sustatzeko, eta, beraz, trantsizio energetikoa onez burutzeko).

Azken bi urteetan ikatza erretzen duten zenbait zentral termiko itxi dira. Horrek eragin handia eduki du zentral horiek zuzenean zein zeharka lanpostu asko sortzen dituzten Espainiako eskualdeetako egoera ekonomikoan. Jarduera ekonomiko alternatiboa sustatu nahian, azaroaren 22ko 17/2019 Errege Lege Dekretuaren bidez xedapen gehigarri bat erantsi zitzaion abenduaren 26ko 24/2013 Legeari. Xedapen horren arabera, prozedurak arautu eta baldintza teknikoak eta ekonomikoak ez ezik ingurumeneko onurak eta onura sozialak ere kontuan hartzen dituztenak jar daitezke itxiera horien eragina nozitu duten sareko guneetako hornidura-kapazitate osoa edo horren zati bat emateko. Prozedura horiek diseinatu ahal izateko, ezinbestekoa da aurretik jakitea zenbateko hornidura-kapazitatea dagoen sareko gune horietan, eta kontuan hartu behar dira teknologiaren bilakaera eta irizpide teknikoak eta segurtasun-irizpideak. Horregatik, lehen xedapen gehigarrian ahalmena ematen zaio Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritzari sistemaren eragileari eskaera hau egiteko: esan dezala zenbateko kapazitatea duten bidezko trantsizioko sistema-guneek (eranskinean zehazten dira) zirkuitulaburreko potentziarekin eta sarearen egonkortasun estatikoarekin eta dinamikoarekin lotutako irizpideak aplikatuz.

Garraio eta banaketako sare elektrikoetan gehienez egin daitezkeen inbertsioen mugak BPGd-aren araberrak dira; beraz, hori murrizten bada, inbertsioek behera egingo dute. COVID-19aren ondoriozko BPGd-aren beherakada handiak sareetan egiten diren inbertsioetan kopuru absolutuetan eragingo lukeen murrizketa konpentsatu behar denez

gero, bigarren xedapen gehigarrian aparteko neurria ezartzen da: inbertsioen gehieneko mugak, BPGD-aren ehunekoetan emanik, gehitu egiten dira, hasierako inbertsio-erritimoari eusteko eta energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazio berrien integrazioarako behar diren inbertsioei ekin ahal izateko. Halaber, bai barne-merkatuko herrialdeekin eta bai beste herrialde batzuekin garraio-sareko konexioak gehitzeko, baina, aldi berean, herrialdea hornitzen duen garraio-sarean egin beharreko inbertsioak murriztu gabe gehitzeko, 2021-2026ko aldian ez da zenbatuko nazioarteko konexioek eragindako inbertsioen zenbatekoa garraio-sareko kopuruaren muga aplikatzen zaion urteko inbertsioen bolumena kalkulatzeko.

Energia eta Klimaren Esparru Estrategikoko Bidezko Trantsizioaren Estrategia estatu-eremuko tresna bat da, helburutzat duena jarduerarako eta enplegurako aukerak optimizatzea ekonomiaren trantsizio ekologikoaren bidean; horrez gainera, horren bitartez neurri egokiak identifikatu eta hartuko dira langileek eta lurraldeek tratamendu solidarioa eta bidezkoa jaso dezaten trantsizio horretan. Eskualde batzuetan, trantsizio energetiko eta ekologikoak eragozpenak sor diezazkieke arlo horietako enpresei eta jarduera ekonomikoari. Eskualde horietarako, bidezko trantsiziorako hitzarmenak ezarriko dira, eta hitzarmen bakoitzean lurralderako ekintza-plan integral bat proposatuko da, honako xede hauek edukiko dituena: jarduera suspertzea eta lanpostuak sortzea, biztanleak ezartzea eskualdean, eta ekonomia egoera sozioekonomikoaren arabera dibertsifikatzea eta espezializatzea.

Oro har, dinamika berri horiek ikatz-meatzaritza tradizionala izan den eskualdeen antzeko ezaugarriak dituzten lurraldeei eragingo die, hau da, hirigune handietatik urrun dauden eta herritarrak galtzeko arriskua duten udalerriei, baina ez bakarrik horiei. Horregatik, kasu askotan, konponbideak ere meatzealdeetan aplikatu direnen antzekoak dira, batez ere lan-metodologiak.

Bidezko Trantsiziorako Estrategiaren gobernantzarako, politika publiko horretara egokitu behar da garai bateko Ikatz Meatzaritza Berregituratzeko eta Meatze Eskualdeen Garapen Alternatiborako Institutuaren xedea (institutu hori Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurrien abenduaren 30eko 66/1997 Legeak sortu zuen). Aldi berean, meatzealdeetan abian diren proiektu eta jarduketa garrantzitsu guztiak mantentzen dira institutuari izena aldatu eta «Bidezko Trantsiziorako Institutua, organismo autonomoa» ezarri ondoren (aldaketa hori apirilaren 28ko 500/2020 Errege Dekretuaren bidez onartu zen; errege-dekretu horrek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen du eta Ministerioetako Departamentuen Oinarrizko Egitura Organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen du). Bidezko Trantsiziorako Institutua organismo autonomoaren xedea azken xedapenetako bigarrenean aldatzen da.

Hirugarren xedapen gehigarrian, sistema elektrikoaren oreka eta likidezia epe laburrean bermatzeko behar diren neurriak ezartzen dira. Hain zuzen ere, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari ahalmena ematen zaio sistema elektrikoko diru-sarreraren superabita erabiltzeko sistemaren 2019ko eta 2020ko kostuak estaltzeko; bai ekitaldia ixtean gertatzen diren alde baterako desorekak estaltzeko (horrek du lehentasuna), bai ekitaldiaren itxierako likidazioaren kontura egiten diren hileko likidazioetan gertatzen diren desbideratze iragankorrak estaltzeko.

Laugarren xedapen gehigarrian, zenbait neurri ezartzen dira berriazko ordainsari-araubidea duten eta ustiapen-kostuak funtsean erregaiaren prezioaren arabera erabiarazteko dituzten instalazioei laguntzeko, haien bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, egungo egoera oso txarra baita haien jardunerako: merkatu elektrikoaren prezioa asko jaitsi da alarma-egoera deklaratu zenetik; izan ere, horrek asko eragiten die, haien ustiapen-kostuak handiak direlako eta diru-sarrerak merkatu elektrikoaren prezioaren arabera aldatzen direlako.

Horren ildotik, eragiketen ordainsariaren balioaren berrikuspina ezartzen da, alarma-egoera indarrean egon den aldian aplikatzeko. Hori kalkulatzeko, alarma-egoera indarrean egon den aldiko merkatu elektrikoaren prezioak eta CO₂-aren emisio-eskubideak hartzen dira kontuan. Gainera, % 50 murrizten dira 2020ko gutxieneko jarduneko eta

jardun-atalaseko ordu baliokideen zenbatekoak, oinarritzat hartuta otsailaren 24ko TED/171/2020 Aginduan ezartzen diren balioak, zeren eta COVID-19aren ondorioz ekoizpen industriala asko murriztu baita, eta, ondorioz, industria horiei atxikitako instalazioetan sortzen den energia elektrikoa ere bai.

Aipatu behar da kostuak funtsean erregaiaren prezioaren araberakoak dituzten instalazioen diru-sarrereren eta kostuen egituraren ezaugarriak bereziak direla. Horregatik, instalazio horiei gogorrago erasaten diete ezohiko egoerek; COVID-19aren ondoriozko larrialdiak, esaterako.

Diferentzia handia egon da otsailaren 24ko TED/171/2020 Aginduak 2020. urterako ezartzen duen merkatu elektrikoko prezioaren eta alarma-egoera indarrean egon den aldian merkatu horretan izan den batez besteko prezioaren artean, eta, ondorioz, merkatuan energia salduz lortutako diru-sarrerak uste baino askoz gutxiago izan dira. Murrizketa nabarmena izan da, batez ere, merkatuko prezioak gehien eragiten dien instalazioetan; esaterako, ustiapen-kostu handiak dituzten eta kostuok funtsean erregaiaren prezioaren araberakoak diren instalazioetan.

Halaber, aipatu beharrekoa da ezen, berariazko ordainsari-araubideko instalazioetan, ustiapen-kostuok funtsean erregaiaren prezioaren araberakoak dituzten instalazioek dutela eragiketen ordainsarrietatik lortutako diru-sarrereren mendekotasunik handiena guztirako diru-sarreretan. Horretarako arrazoia honako hau da: horrelako instalazioen ustiapen-kostuak gainerakoenak baino handiagoak dira, erregaiaren kostua ere sartzen baita. Gainera, ustiapen-kostuak funtsean erregaiaren prezioaren araberakoak dituzten instalazioen potentzia gehienak ez dauka inbertsioaren ordainsaririk, edo hura oso apala da.

Ustiapen-kostuak funtsean erregaiaren prezioaren araberakoak dituzten instalazioen diru-sarrereren eta kostuen egituraren ezaugarri bereziak abenduaren 26ko 24/2013 Legeak aitortzen ditu, eta berariaz mekanismo bat ezartzen du teknologia horietarako ordainsariak berrikusteko.

Hiru arrazoiren konbinazioaren eraginez (merkatuko prezioaren jaitsiera, prezio horren eragin handia eta erregaiaren erabilerak dakartzan ustiapen-kostu handiak) ustiapen-kostuak funtsean erregaiaren prezioaren araberakoak dituzten instalazioak jasaten ari dira bortitzen COVID-19ak ekarri duen egoera larri honen ondorioak.

Xedapen iragankorretara etorrira, lehenengoan sarbide-baimenen eskaera berriak arautzen dira, eta ezartzen da ez dela baimenik emango harik eta sarbide eta konexioaren arau-esparrua finkatu arte, kasu jakin batzuetan izan ezik. Ondorioz, ez da onartuko eskaera berriak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean dagoen sarbide-kapazitateari dagokionez, ez eta geroago iraungitzeen, ukoen edo gerora sortutako beste arrazoi batzuen ondorioz askatzen den kapazitateari dagokionez ere. Xedapen hori ezinbestekoa da, bestela mugari administratiboak ezartzen dituen artikulua ez bailuke inolako eraginkortasunik edukiko; izan ere, xedapen hori izan ezean, gerta liteke bi hileko epealdian baimenari uko egiten dioten subjektuek, bermeak berehala berreskuratuz gero, beste eskaera bat aurkeztea sareko gune berean konektatzeko proiektu irmorik eduki gabe.

Beraz, luzamendua ezarri behar da sarbide-eskaerretarako, harik eta sarbide-baimenak emateko arautegi berria onartu arte. Arautegi berrian, baimen-eskatzaileei exijitu beharko zaie sareko gune batera konektatzeko eskaera aurkeztu aurretik hobeto lantzeko proiektua eta egin beharreko azterlanak. Horrela eragotziko da espekulatzeko eskaera masiboak aurkeztea proiektu irmorik prestatuta eduki gabe. Luzamendu hori aldi baterako bakarrik izan dadin, arau-garapenari buruzko azken xedapenean agindua ematen zaie Gobernuari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen onar ditzaten behar diren erregelamendu-xedapenak.

Beste alde batetik, energiaren sektoreko enpresei alarma-egoeratik irteten laguntzeko, energia-efizientziaren inguruko neurri berria ezartzen da: 2020. urtean luzamendua aplikatuko zaie Energia Efizientziaren Funts Nazionalera egin beharreko ekarpenei. Egungo egoera nolakoa den ikusita, eta salbuespen modura, bigarren xedapen

iragankorrak ezartzen du luzamendua aplikatuko zaiela martxoaren 23ko TED/287/2020 Aginduaren arabera Energia Efizientziaren Funtz Nazionalera egin beharreko ekarpenei.

Kontua da enpresa merkaturatzaileei denbora ematea COVID-19aren ondoriozko alarma-egoera amaitu ondoren likidezia berreskuratzeko. Enpresa edo betebeharreko subjektu horiek mikroenpresak, enpresa txikiak eta enpresa ertainak dira (ETEak), Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EB Erregelamenduaren I. eranskinarekin (ETEen definizioarekin) bat etorritik (erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza kategoria eta barne-merkatua bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta). Luzamendua 2021eko otsailaren 28ra arte iraungo du. Luzamenduari heldu nahi dionak ETEa dela frogatu beharko dio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioi Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiari 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

Azken xedapenetako lehenengoa sistema elektrikoaren kostuak likidatzeko egitekoarekin dago lotuta; egiteko hori Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari dagokio, ekainaren 4ko 3/2013 Legearen laugarren xedapen iragankorrak lege beraren 1.d) apartatuari dagokionez ezartzen duenaren itzalpean. Horren arabera, batzorde horrek zenbait banku-kontu kudeatu behar ditu sektore elektrikoan likidatu beharreko zenbait kontzeptutako kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Kontu horiek sektore publikoko kontratuei buruzko arautegiarekin bat etorritik ireki dira, eta, finantza-merkatuen egungo egoeraren ondorioz, haien kudeaketa mantentze-gastuak eragiten hasiko da. Kasu batzuetan, sistemako kostuei aplikatu beharreko araubide ekonomikoaren arabera, ezin dira finantzatu ordainketak egiteko erabiltzen diren banku-kontuak mantentzeak eragiten dituen kostuak. Beraz, xedapen bat behar da, berariaz, kostu horiek sistema elektrikoaren barruan finantzatzeko sistemako kostu likidagarri gisa.

Horretarako, 24/2013 Legearen 13.3 artikuluari letra bat eranstean zaio, eta, horren arabera, sistema elektrikoaren kostuak izango dira sektore elektrikoaren kostu arautuen likidazioak egiteko ardura daukan erakundeak kudeatzen dituen kontuek eragiten dituzten gastuak, honako kasu honetan izan ezik: kostu horiek kontuan dena delako eskubidearen titularraren alde dagoen saldotik kendu behar direnean. Hain zuzen ere, diru-sarreraren superabitak kontuan eragiten dituen gastuak kontuan dagoen saldotik kenduko dira.

Gainerako azken xedapenetan honako hauek arautzen dira: eskumen-tituluak, Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea, erregelamendu bidezko garapena eta arauak emateko gaikuntza. Azkenik, errege lege-dekretu honek eranskin bat dauka: bidezko trantsizioeko sistema-guneen zerrenda.

VI

Jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko beste neurri batzuk hizpide hartuta, IV. tituluan ezartzen da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak berariaz ezarritako erregelaren ondoriozko 2019ko saldo positiboaren ehuneko 7 erabili ahal izango dutela toki-erakundeek 2020. urtean, gehienez ere, ibilgailu elektriko hutsetan edo ZERO ingurumen-etiketa duten ibilgailuetan egiten diren inbertsio-gastuak finantzatzeko, baita erositako ibilgailuak berriz kargatzeko azpiegituretan egin diren inbertsio-gastuak finantzatzeko ere. Ibilgailua, betiere, zerbitzu publiko hauetako bat emateko erabili behar da: hondakinen bilketa, ezabaketa eta tratamendua; segurtasuna eta ordena publikoa; babes zibila; suteen prebentzioa eta su-itxaltzea; bidaiarien garraioa. Frogatzen bada ez dagoela ZERO etiketa duen ibilgailurik zerbitzuaren gutxieneko beharrianak betetzen dituenik, ECO etiketa duten ibilgailuetan egindako inbertsioak finantzatzeko erabili daiteke saldo positiboaren ehuneko hori.

Espainiako ibilgailu-industriaren balio-kateko prozesuetan berrikuntzak egiteko inbertsioak sustatu nahian, 7. artikuluan, kontzeptu horregatik sozietateen gaineko zergaren ordainketan aplika daitekeen kenkariaren ehuneko gehitzen da 2020. eta 2021. urteetan hasten diren zergaldietarako: gaur egun % 12 da, eta zergaldi horietan % 25 izango da.

Beste alde batetik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen da, ingurumen-ebaluazioaren prozedura azkarragoa izan dadin eta segurtasun

juridikoa handiagoa izan dadin; hain zuzen ere, ekonomia suspertzea sustatzen duten eta aldi berean ingurumenaren babesa bermatzen duten proiektuen izapideak errazten dira.

Horretarako, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34., 43. eta 47. artikulua aldatzen dira; kontua da ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenen indarraldiaren luzapena arautzea eta hutsune juridikorik egotea, eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta ingurumen-ebaluazio erraztuaren irismena zehazteko prozedura arintzea eta ingurumen-ebaluazioaren prozedura erraztua ingurumen-ebaluazioaren prozedura arruntarekin berdintzea.

Trenbideen sektoreari bi neurrik eragiten diote. Batetik, osasun-arrazoiengatik plazen eskaintzan onartutako arautegi-muga kontuan hartu beharko da Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten trenbide-lineak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonaren likidazioan. Kanona nolakoa den kontuan edukita, beraren likidazioan inolako doikuntzarik egingo ez balitz, osasuna babesteko asmoarekin eskaintzari ezarritako arautegi-mugarekin bat ez datorren zenbatekoa kargatuko litzateke. Izan ere, kontua da operadoreak azpiegituren administratzaileari kanonik ordaindu beharrik ez izatea osasun-arazo larri batzuegatik ezarritako ezohiko muga dela-eta (ez eskaririk ez dagoela-eta) diru-sarrerarik emango ez dioten plazengatik. Tributu batez ari garenez gero, guztiz zentzuzkoa den irizpide horren aplikazioa lege-mailako arau baten bidez arautzea onena, segurtasun juridikoaren mesedetan.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan eta hura garatzen duten xedapenetan merkataritzako establezimenduen itxiera arautzen da. Horrek eta pertsonen zirkulazio askeari ezarritako murrizketek eragin handia izan dute tren-geltokietan eta trenbide-azpiegiturak administratzen dituzten enpresa-entitate publikoek errentatutako beste higiezin batzuetan (lokalak, eraikinak, instalazio logistikoak eta lurrak) dauden merkataritzako lokaletan. Gobernuak ekoizpen- eta gizarte-sarea babesteko eta laguntzeko abian ezarritako politika publikoen barruan, aukera ematen da aipatutako lokalen errentaren ordainketa atzeratzeko edo errenta bera murrizteko; atzeratzea edo murrizketa errentariak eskatu behar du.

Beste alde batetik, enplegu publikoaren esparruan, gertatu den osasun-krisiak eta alarma-egoeraren ondorioz onartutako euste-neurriek (aurrez aipatu diren administrazio-epaaldiak eteteak, esaterako) aldatu egin dute administrazio publikoen ohiko jarduna, eta horrek mugatu egin ditu enplegatu publikoak aukeratzeko prozesu berriak hasteko posibilitateak eta, zehazki, edozein kidego eta eskalatan sartzeko deialdiak (are enplegua egonkortzeko Estatuaren aurrekontu orokorren azken legeetan aurreikusitako prozesuak aurrera eramateko egin beharreko deialdiak ere) kudeatzeko eta argitaratzeko behar den jarduera.

COVID-19ak eragin duen pandemiak eragin handia eduki du bigarren dibidendu digitala liberatzeko prozesuan ere. Osasun-krisi hau hasi arte, gure herrialdean ondo bete izan dira bigarren dibidendu digitalaren banda (maiztasunak: 694-790 MHz edo 700 MHz) lurreko telebista digitalaren zerbitzurako egungo erabileretatik liberatzeko ezarritako epealdiak; horren xedea zera zen: gero hura haririk gabeko banda zabaleko komunikazio-zerbitzu elektronikoak emateko gauza diren lurreko sistemetak erabili ahal izatea. Beraz, banda hori 2020ko ekainaren 30erako liberatzeko moduan ginen, honako hauetan ezartzen den bezala: 2017/899 (EB) Erabakia 2017ko maiatzaren 17koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena; eta 391/2019 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Lurreko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionala onartu eta dibidendu digitala liberatzeko zenbait alderdi arautzen dituena.

Hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak, ezinbesteko murrizketak ezarri zizkien pertsonen mugikortasunari eta jarduera ekonomiko eta merkataritzako jarduera askori. Gainera, Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak jarraibide batzuk eman zituen ezerk eragotz ez zezan momentu haietan lurreko telebista digitala etxean jaso ahal izatea, egoera horretan oso zerbitzu garrantzitsua baitzen; horrez gainera, asmoa zen herritarrek beren telebistak berriz sintonizatu beharrik ez edukitzea,

pertsonak batetik bestera ez ibiltzeko eta instalatzaileek herritarren etxeetara joan beharrik ez edukitzea.

Horren guztiaren ondorioz, modu nabarmenean moteldu zen maiztasunak aldatzeko prozesua bigarren dibidendu digitalaren liberazioaren ondorioz irrtati-maiztasun berriko kanalak erabili behar dituzten telebista-zentroetan, bai eta eraikinetan telebista digitalaren bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua jasotzeko sistemak egokitzeko prozesua ere. Horrenbestez, bigarren dibidendu digitala liberatzeko prozesua 2020ko ekainaren 30erako amaitzea ezinezkoa zela ondorioztatu zen.

Epea luzatzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 17ko 2017/899 (EB) Erabakiaren 1. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan xedatzen denarekin bat etorritik erabaki zen, eta Espainiako agintaritzak 2020ko martxoaren 30ean eman zion horren berri Europako Batzordeari.

Beraz, amaitzeko muga-egun berria ezarri behar zaio bigarren dibidendu digitala liberatzeko prozesuari. Gizarte-jarduera eta jarduera ekonomikoa suspertzen ari direnez, eta normaltasun berrirako trantsizioa hasita dagoela, berriz ere ekin zaio eraikinetako telebista digitaleko antena kolektiboetako sistemak egokitzeari, eta, orain arte zenbat egokitu diren erakusten duten azken datuak ikusiz eta datu horien bilakaera aurreikusiz, uste izatekoa da 2020ko irailaren 30erako amaitu ahal izango dela egokitzapena.

Egin beharreko gainerako lan guztiak egin ahal izateko, potentzia urriko transmisoreen maiztasunak aldatzeko batez ere, 2020ko urriaren 31 izango da bigarren dibidendu digitala liberatzeko muga-egun berria.

VII

Halaber, aldi horretan ezarritako mugitzeko eta jarduerak egiteko murrizketek eta administrazio-epealdien etendurak eragozpenik sor ez dezaten, bi hilabete luzatzen da portuetako estibatzailen kudeaketarako sozietate anonimoak (SAGEP) egokitzeko epealdia. Epealdi hori maiatzaren 12ko 8/2017 Errege Lege Dekretuak ezartzen du, lehenengo xedapen iragankorrean (errege lege-dekretu horrek salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzua emateko langileen araubidea aldatzen du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-576/13 auzigaiari buruz 2014ko abenduaren 11n emandako epaia betetzeko; 2009/4052 arau-hauste prozedura). Gainera, epealdi hori 2020ko maiatzaren 14an amaitu da, eta, beraz, ahalik azkarren eguneratu behar da: arau emateko beste arrazoi bat.

Osasun-kontrolari dagokienez, oso garrantzitsua da azkar detektatzea atzerititik datozen COVID-19 kasuak, horien ondorioz agerraldiak gerta bailitezke gure herrialdean, eta, halaber, funtsezkoa da positibo ematen duten pertsonekin harreman estuetan izan diren pertsonak aurkitzea. Hori dela eta, osasun-neurriak ezarri dira Espainiako portuetan eta aireportuetan. Neurri horiek atzerititik datozen kasuak detektatzeko sistema orokor baten barruan daude. Sistema horrek arrakasta edukiko badu, ezinbestekoa da kasuak azkar detektatzea eta berehala ezartzea kontrol-neurriak gaixotasunaren hedapena eragozteko.

Horrenbestez, portuetan eta aireportuetan osasun-kontrol egokiak ezarri behar dira, EASA/ECDC gidalerroetan ezartzen denarekin bat etorritik eta itsasoko osasun publikoaren inguruko nazioarteko gomendioak oinarritzat hartuz (EASA/ECDC ingelesezko siglak, hurrenez hurren, erakunde hauei dagozkien: Aire Segurtasuneko Europako Agentzia, eta Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako Europako Zentroa); honelako neurriak izan daitezke, besteak beste: bidaiarien tenperatura neurtzea, dokumentu-kontrola egitea eta nola dauden begiz aztertzea.

Dokumentu-kontrola osasun publikoko formulario baten bidez egingo da; bi helburu edukiko ditu: batetik, COVID-19ari dagokionez bidaiaria nola dagoen ebaluatzea; bestetik, bidaiaria aurkitu ahal izatea, pertsona bat COVID-19az kutsatuta dagoela egiaztatu eta harekin harremanetan izan direnen bila hasi behar izanez gero.

Hala, portuetan eta aireportuetan osasun-kontrolerako ezartzen diren neurriei esker gertuago egongo da osasunaren aldetik segurua den bidaiatzeko ingurunea lortzea, bidaiariei segurtasuna eta konfiantza ematen diena eta COVID-19a hedatzeko arriskua murrizten duena.

Ikerketa zientifikoaren arloan, nazioarteko lankidetzak galanki areagotu da azken urteotan, batez ere Europar Batasunaren barruan, Europako Ikerketa eta Berrikuntzaren Esparruari esker (ERA). Europar Batasunaren erakunde hori gizartearen beharrezanean aurre egiteko gauza da eta munduari irekita dago, non ikertzaileak, ezagutza zientifikoak eta teknologiak trazarik gabe baitabilza.

Indarrean dagoen ikerkuntza eta berrikuntzarako esparru-programaren barruan (Horizonte 2020 (2014-2020) esparru-programa) asko gehitu dira geometria aldakorreko lankidetzako ikerketa-ekimenak, eta baterako zenbait programa-tresna sortu dira (entitate publikoen artekoak eta entitate publiko eta pribatuen artekoak) Europar Batasunaren finantza-laguntzarekin. Horretarako, kudeaketa-lan handia egin behar izan da, eta diru-ekarpen handiak egin behar izan dituzte Espainiako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemako finantzaketa-agente publiko estatalek.

Laster, Horizonte (2021-2027) Europako ikerkuntza eta berrikuntzarako programako elkarrekin finantzatzen lagundu beharko dute Batasuneko estatuak. Horregatik, mekanismo bat sortu beharra dago proiektu horietarako behar diren dirulaguntzak azkar emateko.

Errege lege-dekretu honen bidez, aukera zabaltzen da dirulaguntza horiek zuzenean emateko Europar Batasunaren urte anitzeko esparru-programaren barruan Batasuneko zenbait estatuk Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 182., 185., 186. eta 187. artikuluetan xedatzen denaren itzalpean sortutako azpiegituren I+G+b arloko deialdi publikoen ondorioz prestatzen diren ikerketa zientifiko edo teknikorako edo berrikuntzarako proiektuak egiteko, eta Europako ikerkuntza eta berrikuntzarako esparru-programaren beraren barruan sortutako elkarrekin prestatzen dituzten proiektuak egiteko ere bai. Gainera, gauza bera egin ahal izango da lehiakortasunaren arloko ikerketa eta berrikuntzarako laguntzen deialdi publikoetan ere; horietan, parekoen ebaluaziorako nazioarteko estandarrak aplikatuko dira ebaluazioan, eta dirulaguntzak Espainiak sinatutako nazioarteko itun edo akordioen arabera sortutako egiturek kudeatuko dituzte.

Horri esker, urrats administratibo bat ezaba daiteke, balio erantsirik ekartzen ez ziena ez onuradunei eta ez Administrazioari, hau da, ez dago dirulaguntzen bigarren barne-deialdirik egin beharrik nazioartean dagoeneko ebaluatu eta hautatu diren proiektuetarako.

Errege lege-dekretu honetan proposatzen diren aldaketak indarrean jartzen direnean, hobetu egingo dira Estatuaren finantzaketa-agente publikoek nazioarteko programetan finantzaketa-iturriak lortzeko aukerak, eta, horrela, nabarmen gehituko dira I+G+g arloko Espainiako entitateek lehia bidez lortzen dituzten itzulkin-tasak.

Azken xedapenetako laugarrenak xedapen gehigarri bat eransten dio, hamaseigarrena, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeari. Xedapen horrek amortizatze askatasuna ematen du 2020. urtean automobilaren sektoreko ibilgetu materialeko elementu berrietan egiten diren inbertsio batzuetarako: ekoizpen-katea sensorizatzea eta monitorizatzea dakarten eta plataforma modularretan oinarritutako fabrikazio-sistemak ezartzea dakarten inbertsioak edo ingurumenaren gaineko eragina murrizten duten inbertsioak.

Neurri horri esker, berehala inbertitzeko erabakiak sustatuko dira, enplegua mantenduta, eta Espainiako lantegietan modelo elektrifikatu gehiago eta horien osagai gehiago egingo dira. Halaber, honako hauek bultzatuko dira: baterien bizitza-zikloari lotutako industria edo kargatzeko azpiegitura, konektatutako mugikortasun-sistemak eta mugikortasun jasangarriaren arloko beste ekosistema industrial batzuk.

Neurri honen bitartez sektoreak aurre egin ahal izango dio birmoldatzeko prozesuari, epe luzera lehiakorra izango dela bermatzeko. Hain zuzen ere, teknologietan behar diren inbertsioak egin ahal izango dituzte etorkizuneko automobilen industriara iristeko, hau da, ibilgailu jasangarriak, ibilgailu konektatuak eta are ibilgailu autonomoak nagusi izango diren industriara.

VIII

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikuluen 13., 22., 23. eta 25. zenbakietan Estuari ematen zaizkion eskumen eskusiboen babesean ematen da. Zenbaki horietan, hurrenez hurren, gai hauen gainean esleitzen zaizkio eskumen

esklusiboak: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; instalazio elektrikoaren gaineko legegintza eta haien baimentzea, haien aprobetxamenduak beste autonomia-erkidego bati eragiten dionean edo energia hori dagokion lurralde-eremutik kanpora garraiatzen denean; ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legedia (nolanahi ere, autonomia-erkidegoek ahalmena izan dezakete babeserako arau gehiago emateko); meatze- eta energia-araubidearen oinarriak.

IV. tituluko artikulua honako eskumen-titulua hauen arabera ematen dira:

6. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 14. zenbakien babespean ezartzen da; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, eta ogasun publikoa eta Estatuaren zorra.

7. artikulua Konstituzioaren 149.1.14 artikulua babespean ezartzen da; artikulua horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka ogasun publikoaren gainean.

Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 8. artikulua aldaketak, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 11ko 53/2017 Epaiarekin bat etorritik, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babespean egiten dira (artikulu horrek administrazio publikoaren araubide juridikoa eta administrazio-prozedura erkidea arautzen ditu), autonomia-erkidegoen antolaketa propioaren ondoriozko berezitasunen kalterik gabe (34. artikulua, 4. apartatua, hirugarren paragrafoa; 43. artikulua, 3. apartatua, bigarren esaldia). Halaber, honako hauek ez dira oinarritzkoak eta, horrenbestez, Estatuak Administrazio Orokorrari eta haren organismo publikoei soilik aplikatu behar zaizkie: 34. artikulua 4. apartatuko bigarren paragrafoa; 43. artikulua 2. apartatua eta 3. apartatuaren azken esaldia; eta 34., 43. eta 47. artikuluetan ezartzen diren epealdiak.

9. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13., 14. eta 21. zenbakien babespean ematen da; horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun publikoa eta Estatuaren zorra; eta autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak zeharkatzen dituzten trenbideak eta lurreko garraioak.

10. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 21. zenbakien babespean ematen da; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; eta autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak zeharkatzen dituzten trenbideak eta lurreko garraioak.

11. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 18. zenbakien babespean ematen da; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; eta herri-administrazioetako araubide juridikoari eta horietako funtzionarioen estatutu-erregimenari buruzko oinarriak.

12. artikulua Konstituzioaren 149.1.21 artikulua babespean ematen da; horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka telekomunikazioen arloan.

Bosgarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1 artikulua 7., 14. eta 20. zenbakien babespean ematen dira; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: lan-legegintza; Estatuak Ogasuna; eta interes orokorreko portuak eta nabigazio zibila.

Beste alde batetik, seigarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1.16 artikulua arabera Estatuak kanpoko osasunaren arloan daukan eskumen eskusiboaren babespean ematen da.

Azken xedapenetako hirugarrena Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babespean ematen da; izan ere, horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka administrazio-prozedura erkidegoan, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik datozen berezitasunak.

IX

Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «premia apartekoa eta presazkoa egonez gero», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarri juridikoa; 68/2007 epaia, 10. oinarri juridikoa, eta 137/2011 epaia, 7. oinarri juridikoa), presazko legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean —esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presazko prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar da badela «ezinbesteko lotura bat zehaztutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa, eta 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 4. oinarri juridikoa)».

Proposatzen den sarbidearen gaineko erregulazioaren aparteko eta presako beharria jarraian azalduko da. Gaur egun sarbide eta konexiorako eskaera asko ari dira izapidetzen: azken hamasei hiletan guztira 430.000 MW gehiago sortzeko eskaerak aurkeztu dira (abalak ipinita), eta sarbide-baimena eskuratu dutenek 136.000 MW-tik gora sareratuko dituzte. Azken hiletan eskaera berriak modu esponontzialean gehitzen ari dira; hilean-hilean 30.000 MW eskatzen dira, gutxi gorabehera.

Eskaeren kopurua zein handia den ulertzeko, ez dago azaldu diren zifra horiek sistema elektriko nazionalako magnitude nagusiekin alderatzea baino. Hain zuzen ere, 430.000 MW horiek 2018ko amaieran instalatuta zegoen potentzia halako lau dira; orduan, 105.000 MW zeuden instalatuta, eta haietatik 25.000 MW eolikoak ziren, eta 5.000 MW inguru, fotovoltaikoak. Beste alde batetik, Espainiako sistema elektrikoan eskaririk handiena 45.000 MW ingurukoa izan da, hots, sarbide-eskaera berrien arabera instalatuko litzatekeen potentzia baino zazpi bider gutxiago. Azkenik, EKPNI 2021-2030 planaren zirriborroa Europako Batzordeari bidali zaio eta hark ebaluatu du. Horren arabera, helburua 2030erako energia-iturri berriztagarriko instalazio berrietan 60.000 MW sortzea da; aurreko kopurua baino askoz gutxiago, alegia.

Arlo hau behar bezala araututa ez dagoenez gero, ezin dira bereizi proiektu sendo eta bideragarrien eskaerak eta espekulatzeko asmoarekin prestatutako proiektuen eskaerak sarerako sarbidearen eta konexioaren prozedura-bidean. Azaldutako kopuruen gehiegikeria gorabehera, funtsezko zenbait zantzu daude agerian jartzen dutenak oso litekeena dela eskaera askoren atzean espekulazioa egotea, hala nola:

- Sarean sartzeko edo administrazio-baimena jasotzeko eskaera aurkeztean, proiektu asko gaizki landuta daude.
- Azken hamasei hiletan eskaerak asko gehitu dira: 30.000 MW hilean, batez beste.
- Kasu askotan, sarbide-baimena lortu ondoren gertatzen da titularrak ez duela eskatu konexio-baimena, eta horren arrazoia izaten da atzean ez dagoela benetako proiekturik edo proiektua ez dagoela behar bezala landuta. Hain zuzen ere, sarbide-baimena lortu duten instalazioen potentzia 110.000 MW da guztira, gutxi gorabehera, baina % 60k baino gehiagok oraindik ez daukate konexio-baimenik.

2019ko azken bi hiruilekoetako sarbide-baimenen analisiak erakusten du azken hiruilekoan guztira 39.000 MW izan zela sarean sartzeko baimena eman zitzaien

instalazio fotovoltaiko eta eoliko potentzia eta 21.000 MW izan zela kapazitate faltagatik baimena ukatu zitzaie instalazioek gehituko zuten potentzia. Urte hartako laugarren hiruhilekoan, sarean instalazio fotovoltaiko eta eoliko 15.500 MW sartzeko baimena eman zen, eta 39.500 MW sartzeko baimena ukatu zen kapazitate faltagatik. Atzera botatako baimen-eskaeren gehikuntza azkarrak agerian ipintzen du sare heldutasun urriko proiektu espekulatiboz gainezka egotea kaltegarria izan daitekeela ekimen sendo eta helduan oinarritutako ekoizpen-proiektu askorentzat. Horrenbestez, errege legedekretu honetan proposatzen diren neurriak ezarriko ez balira, ondo landutako ekoizpen-proiektuen kostuak gehituko lirateke eta proiektuok etenda geldituko lirateke, ez bailukete edukiko sarera konektatzeko aukerarik. Aurrekoak arriskuan jarriko luke inbertsio handiak gauzatzea eta ekonomia garatzea eta lanpostuak sortzea alternatiba ekonomiko urriko eskualdeetan; gainera, eskualde horietako batzuetan zentral termiko konbentzionalak ixten ari dira, eta itxiera horiek ondorio txarrak eduki ditzakete enpleguan eta jarduera ekonomikoan.

Gainera, ekoizpen-proiektu berriak ondo lantzeko prozesua luzea denez gero, arazoari ez badiogu azkar heltzen, baliteke arriskuan jartzea EKPNI 2021-2030 planean energia berriztagarriak sisteman sartzeko ezarritako ibilbidea.

Halaber, sarbide eta konexiorako baimenen eskaeren gehikuntza neurrigabeak, zeinak esan bezala espekulaziotik asko baitauka, zentral berrien eraikitzeak kostuak modu artifizialean gehitzea ekarriko luke, nahiz eta saihestu daitekeen, eta kostu horiek, azken batean, elektrizitate-konsumitzaileek ordaindu beharko lituzkete.

Beraz, ezinbestekoa da azkar hastea garraio eta banaketako sareetara sartzeko eta konektatzeko irizpideak goitik behera aldatzen; izan ere, konpondu nahi den arazoa modu esponontzialean hazten ari da eta berehala ez konpontzeak edo konponketa atzeratzeak erabat zailduko luke arau honetan ezartzen diren neurrien aplikazioa.

Bestela, azaldu diren arrazoi guztiengatik, gai horiek legegintza-prozedura arruntaren bidez arautuko balira, konponbidea hainbeste atzeratuko litzateke, ezen proiektu sendo asko etenda geldituko bailirateke eta horrek ekarriko lukeen «dei-efektuaren» ondorioz are eskaera gehiago aurkeztuko bailirateke.

Iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten elektrizitate-ekoizpeneko instalazioak direla eta, presaz jarduteko arrazoa da ez dagoela sektore honetako inbertsioen segurtasuna eta ziurtasuna bermatzen dituen arau-esparrurik, eta gauza jakina da horrelako proiektuen finantza-iturriak aurrez ezagutu behar direla, arlo honetan hartutako konpromisoak beteko baditugu.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da ahalik azkarren ezartzea esparru ekonomiko egonkorra eta segurua, iturri berriztagarriko elektrizitate-ekoizpeneko proiektuak azkar garatu ahal izateko; horrez gainera, esparru berrian kontsumitzaileei arin helarazi behar zaie energia elektrikoa ekoizteko kostuetan aurreztuko dena, eta ziurtasuna eman behar zaio sektoreko industriaren balio-kate osoari, eta, gainera, enpresei eta sektoreei lurraldean irautea eragozten dieten ezaldiak saihestu behar dira.

Instalazio fotovoltaikoa eraikitzeak epealdia 18 hilabete ingurukoa da; instalazio eolikoa eraikitzeak are luzeagoa da; 24 hilabetekoa, hain zuzen ere. Kontuan eduki behar da, gainera, epealdiok luzatu egin daitezkeela nahitaezko izapide administratiboengatik; beraz, argi dago arriskua dagoela 2020-2022ko aldirako ezarritako helburuak ez betetzeko. Horrenbestez, gogoan eduki behar da 30 hilabeteko epealdia eman zela egin ziren azken enkanteetan (2017) adjudikaziodun suertatu ziren instalazioak abian jartzeko.

Gainera, energia berriztagarrien balio-kate osoan hornidurarik ez egoteak ere beste muga bat ezartzen du, ezinezkoa baita aldi laburrean eraikitzea iturri berriztagarriko potentzia handiko instalazioak. Horregatik, ezin da atzeratu gutxika-gutxika sisteman potentzia gehiago sartzeko. Beraz, atzerapen horrek ez luke ekarriko 2022rako ezarritako helburuak ezin bete izatea bakarrik, baizik eta baita hurrengo urteetarako ezarritakoak ere.

Beste alde batetik, abenduaren 26ko 24/2013 Legean zenbait aldaketa egiten dira negozio-eredu berrien garapena, berrikuntza teknologikoa eta energia berriztagarrien hedapen masiboa eragozten dituzten arau-oztopoak ezabatzeko, ekoizpenaren kostu ekonomikoa eta ingurumen-kostua murrizteko asmoarekin. Bada, osasun-alertaren

ondorioz jasaten ari garen krisi ekonomikoa honetan, aldaketa horien justifikazioa da ezinbestekoa dela azkar bultzatzea jardura ekonomikoa eta enplegu jasagarria.

Sistema elektrikoan oreka eta likidezia bermatzeko ezartzen diren neurrien justifikazioa zera da: behar-beharrezkoa dela, batetik, baliabide gehiago sartzea likidazioen sisteman, sistemako subjektuen finantza-zamak arintzeko, eta, bestetik, lotutako jardueren jarraitutasuna eta inbertsio berrien sustapena bermatuko dituen egonkortasunaren seinale bat uztea.

Sistema elektrikoaren kostuen likidazioaz denaz bezainbatean, xedapen hau ahalik azkarren onartu behar da, zeren eta mugaeguneratu berri baitira, edo laster mugaeguneratzekoak baitira, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kontu horiek irekitzeko finantza-entitateekin sinatutako kontratuak eta, gainera, arazoak izan baitira kontratuok berritzeko. Hain zuzen ere, kontratazio horretarako lizitazioak esleitu gabe utzi dira, baldintzen artean ezin izan baita ezarri aipatutako mantentze-gastuak estali beharra.

Beste alde batetik, COVID-19ak ekarri duen larrialdiaren ondoriozko egoera ekonomikoa dela eta, ezinbestekoa da ahalik azkarren ezartzea luzamendua Energia Efizientziaren Funts Nazionalera egin beharreko zenbait ekarpenetarako (Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, ekainaren 13koa, 4.f oinarri juridikoa). Arrazoi berak justifikatzen du toki-entitateek 2020. urtean gehienez ere 2019ko saldo positiboaren ehuneko 7 erabili ahal izatea inbertsio-gastu gisa ibilgailu garbiak erosteko zerbitzu jakin batzuetarako eta ibilgailu elektriko horiek kargatzeko lekuak instalatzeko.

Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozeduren izapideak aldatzen dira; kontua da prozedura horiek arintzea, gaur egun ahalik azkarren ezarri behar baitira jardura ekonomikoa suspertzeko politikak. Gainera, horrek gardentasunaren printzipioa eta segurtasun juridikoaren printzipioa bultzatuko ditu izapideetan.

Modu berean justifikatzen da trenbide-azpiegiturak administratzen dituzten enpresa-entitate publikoek errentatutako lokalen errentariei buruzko erregulazioa. Erregulazio hori martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eta bera garatzen duten xedapenen bidez merkataritzako eta beste arlo batzuetako establezimenduak ixtearen ondoriozkoa da eta pertsonen zirkulazio askea murriztearen ondoriozkoa. Gainera, alarma-egoeraren ondorioz mugikortasuna mugatzeko ezarri diren neurriek eragin handia eduki dute geltokietako merkataritzako lokaletan.

Mugitzeko murrizketek eragina eduki dute bigarren dibidendu digitalaren liberazioaren ondorioz irati-maiztasun berriko kanalak erabili behar dituzten telebista-zentroetan maiztasunak aldatzeko egin beharreko lanetan ere, eta eraikinetan telebista digitalaren bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua jasotzeko sistemak egokitzeko prozesuan ere bai, eta, horren guztiaren ondorioz, azkar ezarri behar da 2020ko urriaren 31 bigarren dibidendu digitalaren prozesua amaitzeko muga-egun berritza.

Beste alde batetik, Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten trenbide-lineak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonaren likidazioak eta horien euskarri diren aitortpenak hilero egiten dira, legedian ezartzen den bezala. Alarma-egoera zenbait hilabete irauten ari da, eta kanona likidatu behar duen administrazioak eta likidazioen aitortpenak egin behar dituztenek lege batean oinarritutako irizpide juridikoa eduki behar dute beren jardunerako, behar den segurtasun juridikoa bermatzeko. Funtsezkoa da araua ahalik azkarren onartzea, hurrengo hileko likidazioa egin aurretik; gainera, horrela dagoeneko aplikatzen ari den irizpidea baliozkotuko da.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 70.1 artikuluan epealdi bat ezartzen du deialdietarako. Bada, epealdi hori ahalik azkarren luzatu behar zaie 2020ko ekitaldian amaitzen zaien deialdiei, oraindik ez baitira bete bere garaian enplegu publikoaren eskaintzak onartzea eragin zuten langile-beharrizanak. Gainera, kontuan eduki behar da interesdunei horren berri eman behar zaiela, segurtasun juridikoaren printzipioa aplikatuz. Ezinbesteko neurri hori presaka hartzen ez bada, ezin izango dira gauzatu deialdi guztiak, eta, horren ondorioz, onartutako plazak galduko dira eta, gainera, etsipena zabalduko da gaikuntza horien esparruan antolatu ezin diren prozeduretan parte hartu nahi luketen pertsonen artean, haien itxaropena zapuztuta.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezartzen den epealdien etendura ez zaio aplikatzen portuetako estibatzaileen kudeaketarako sozietate anonimoak (SAGEP) egokitzeko epealdiari. Epealdi hori maiatzaren 12ko 8/2017 Errege Lege Dekretuak ezartzen du, lehenengo xedapen iragankorrean (dekretu horrek salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzua emateko langileen araubidea aldatzen du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-576/13 auzigaiari buruz 2014ko abenduaren 11n emandako epaia betetzeko; 2009/4052 arau-hauste prozedura).

Hain zuzen ere, 8/2017 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean ezartzen den epealdia nekez pareka daiteke martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera etenda gelditzen diren hiru epealdietako batekin; izan ere, zuzenbide pribatuko epealdia da (merkataritzakoa), mota jakin bateko sozietate anonimoei ematen zaiena (SAGEP sozietate anonimoei, alegia) iraungitzeko edo aldi baterako laneko enpresa bihurtzeko, langileen kontratazioarekin lotutako lan-helburu batekin. Azaldutako guztiak justifikatu egiten du maiatzaren 13ko 8/2017 Errege Lege Dekretuan ezartzen den epealdia azkar luzatu behar izatea lege-mailako tresna berria onartuz.

Espainiara hegazkinez edo itsasoz heltzen diren bidaiariei aplikatu beharreko osasun-kontrolak eta kontrol horien irismena azkar arautu beharraz denaz bezainbatean, mundu osoa dago oraindik pandemia-egoeran, nahiz eta osasun-krisiak gure herrialdean sortu dituen ondorioetako asko kontrolatu diren alarma-egoera indarrean egon den artean Espainian aplikatu diren salbuespen-neurriei esker. Horren ildotik, Osasunaren Mundu Erakundearen iritziz, COVID-19ak sortutako krisia nazioarteko garrantziko osasun publikoko larrialdia da, eta munduko herrialde eta eskualde asko oso gaizki daude epidemiaren ondorioz. Oraindik inoiz ez bezalako erronka bat da hori osasun publikoarentzat.

Horregatik, orain, ezinbestekoa da mekanismo egokiak abian jartzea Espainian ez dadin sartu atzerritik COVID-19az kutsatuta dagoen inor, eta, horretarako, osasun-kontrolako neurri egokiak ezarri behar dira nazioarteko bidaiariak heltzen diren portuetan eta aireportuetan.

Hain zuzen ere, errege lege-dekretu honetan osasun-kontrolari buruz arautzen dena ahalik azkarren aplikatu behar da, zeren eta gure herrialdeko osasun-sistema publikoarentzat ezinbestekoa baita azkar detektatzea atzerritik heltzen diren COVID-19aren kasuak, agerraldiak ekar balitzakete, eta ezinbestekoa baita kutsatutako pertsona horiekin harremanetan izan diren pertsonak berehala aurkitzea.

Ikerketa zientifiko edo teknikoaren eta berrikuntzaren esparruan ematen diren, zenbait entitatek parte hartzen duten eta Europar Batasunaren babesa jasotzen duten dirulaguntza eta laguntza publikoen egoerari dagokionez, esan behar da askotan Batasunaren funtsak alferrik galdu direla estatuko norgehiagoka-prozesuetan berandu aritzeagatik entitate horiei berei Europar Batasunaren esparruan edo nazioartean proiektua proposatu ondoren; izan ere, halako kasuetan egin beharreko izapideak bikoiztu egin dira, alfer-alferrik, batez ere kontuan izanik Batasuneko edo nazioarteko proiektu-hautapenean berdintasunaren, merezimenduen eta norgehiagokaren printzipioak bete direla.

Gainera, bikoizte hori ezohikoa da gure inguruko herrialdeetan: normalean, funts publikoak proiektua nazioartean hautatu ondoren igortzen dira. Ondorioz, Espainiako I+G+b arloko ekosistema publiko eta pribatu osoak lehitzeko desabantaila nabarmena dauka eta atzean geratzen ari da, hau da, aukera gutxiago dauzka beste herrialde batzuetako taldeekin lehitzeko geroz eta nazioartekoagoa den eta sinergiak egunetik egunera gehitzen ari diren ingurune batean.

Horregatik, behar-beharrezkoa da Espainiak arlo horretan duen arautegia Europar Batasuneko gainerako estatuak eta hurbileko beste herrialde batzuetako arautegiekin bateratzea, Espainiako entitateek herrialde horietako entitateek dauzkaten aukera berak eduki ditzaten Batasunaren funtsak norgehiagoka bidez lortzeko prozesuetan.

Izan ere, gainera, horri esker Europar Batasunaren funtsak hobeto aplikatuko dira Espainian, eraginkortasun handiagoarekin baliatu ahal izango dira gure herrialdearen baliabideak, eta Espainiako zientzia, teknologia eta berrikuntza sistemako finantzaketa-agente publiko estatalen izapide administratiboak arindu ahal izango dira. Hain zuzen ere,

azken hori arrazoi nahikoa litzateke azkar onartzeko arau-proposamen hau, xedetzat antolakuntza (Konstituzio Auzitegiaren 60/1986 epaia, maiatzaren 20koa) eta ikerketa zientifiko eta teknologikorako finantza-baliabideak hobeto erakartzea dituen.

Bidezko Trantsiziorako Institutua organismo autonomoaren xedea presaz moldatu behar da, antolakuntza aldetik, baina horretarako behar den lege-arauaren izapideek luzeegi iraungo lukete eta, ondorioz, trantsiziorako politikaren gobernantzaren doikuntza ez litzateke guztiz eraginkorra izango.

Aipatutako arrazoi horiek ondo baino hobeto justifikatzen dute Konstituzioan aipatzen den aparteko eta presazko beharrezana. Behar horrek, Konstituzioaren 86.1 artikulua arabera, aukera ematen dio Gobernuari errege lege-dekretu hau emateko, Estatuaren politika zuzentzeko organoa den heinean (Konstituzio Auzitegiaren 142/2014 epaia, 3. oinarri juridikoa, eta Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, 4. eta 7. oinarri juridikoak).

Errege lege-dekretu honek ez ditu gainditzen Konstituzioak arau-tresna hau erabiltzeko ezarritako mugak; izan ere, ez du eraginik Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskondeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.

X

Errege lege-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotzen diren erregulazio onaren printzipioak.

Hala, bete egiten da premiaren printzipioa, zeina guztiz justifikatuta geratu baita. Segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta eraginkortasunaren printzipioak ere betetzen dira, eta nabarmentzen da neurriak ordenamendu juridikoarekin bat datozela eta haiekin aukerarik onena egiten dela salbuespenezko egoera ikusita, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar den eta ezinbestekoa den erregulazioa biltzen baitute.

Gardentasun-printzipioaz denaz bezainbatean, kasu honetan errege lege-dekretua onartzen denez, ez da beharrezkoa aurretik kontsulta publikoa egitea, eta entzunaldi-izapidea eta informazio publikoaren izapidea ere ez dira behar.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, ezinbestekoak diren kargak baino ez dira ezartzen, eta ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozeduren kargak murrizten dira.

Beraz, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Gobernuoko laugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak, Gobernuko hirugarren presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak, Ogasuneko ministroak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak, Osasuneko ministroak eta Zientzia eta Berrikuntzako ministroak proposatuta, Ministro Kontseiluak 2020ko ekainaren 23ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

Energia berriztagarriak modu antolatuan garatzeko eta bultzatzeko neurriak

1. artikulua. *Elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sareetarako sarbidea eta konexioa antolatzeko irizpideak.*

1. Energia elektrikoa sortzeko instalazioaren sarbide-baimena 2013ko abenduaren 27az gero eta errege lege-dekretu hau indarrean ipini baino lehen lortu duten titularrek honako mugarri administratibo hauek bete dituztela frogatu beharko dute azaltzen den epealdiaren barruan:

a) Sarbide-baimena 2013ko abenduaren 28tik 2017ko abenduaren 31ra bitartean lortu bada (biak barne):

1. Aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera aurkeztea eta onartua izatea: hiru hilabete.
2. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortzea: hemezortzi hilabete.
3. Aldez aurreko administrazio-baimena lortzea: 21 hilabete.
4. Eraikitzeke administrazio-baimena lortzea: 24 hilabete.
5. Behin betiko ustiatzeko administrazio-baimena lortzea: bost urte.

b) Sarbide-baimena 2017ko abenduaren 31z gero eta errege lege-dekretu hau indarrean ipini baino lehen lortu bada:

1. Aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera aurkeztea eta onartua izatea: sei hilabete.
2. Ingurumen-eraginaren adierazpena lortzea: 22 hilabete.
3. Aldez aurreko administrazio-baimena lortzea: 25 hilabete.
4. Eraikitzeke administrazio-baimena lortzea: 28 hilabete.
5. Behin betiko ustiatzeko administrazio-baimena lortzea: bost urte.

a) eta b) letretan ezartzen diren epealdi guztiak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunetik zenbatuko dira.

Energia elektrikoa sortzeko instalazioaren sarbide-baimena errege lege-dekretu hau indarrean jarriz gero lortu duten titularrek b) letran ezartzen diren mugarri administratiboak bete beharko dituzte, eta horretarako epealdiak sarbide-baimena lortu den egunetik aurrera zenbatuko dira.

Sarbide-baimenen titularrek sei hileko epealdia edukiko dute konexio-baimena eskatzeko. Epealdi hori errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunetik zenbatuko da, honako kasu honetan izan ezik: sarbide-baimena lortu ez bada, epealdia baimena lortzen denetik zenbatuko da. Eskaera epealdiaren barruan aurkezten ez bada, sarbide-baimena berez iraingiko da eta administrazio-baimenak emateko eskumena daukan organoak berehala exekutatuko ditu energia garraiatzeko eta banatzeko sareetarako sarbide-baimena izapidetzeko aurkeztutako berme ekonomikoak, abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 59 bis eta 66 bis artikuluetan ezartzen duena betetzeko (1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak eta energia elektrikoaren garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta horniketa-jarduerak arautzen dituena).

Energia elektrikoa ponpaketa-teknologia hidraulikoaz sortzeko instalazioen proiektuetarako eman bada sarbide-baimena, apartatu honetan ezartzen diren epealdiak luzatu ahal izango dira, titularrak eskatu ondoren, baina behin betiko ustiatzeko administrazio-baimenik gabe baimenen gutzirako indarraldia ezin da izan zazpi urte baino luzeagoa.

2. Sarea kudeatzen duenari ez bazaio frogatzen mugarri administratibo horiek bete direla ezarritako epealdian eta behar den bezala, emandako sarbide-baimena berez iraingiko da (edo, kasu batzuetan, sarbide-baimena eta konexio-baimena, biak) eta administrazio-baimenak emateko eskumena daukan organoak berehala exekutatuko ditu energia garraiatzeko eta banatzeko sareetarako sarbide-baimena izapidetzeko aurkeztutako berme ekonomikoak. Nolanahi ere, sustatzaileari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik ingurumen-inpaktuaren adierazpena ez bada aldekoa, berme horiek ez dira exekutatu. Instalazio batek ez badu aurreko izapidereen bat betetzeko betebeharririk, titularrak idazki baten bidez frogatu beharko dio hori baimena emateko edo ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskumena daukan organoari. Halaber, administrazio-baimena eskatu dela frogatzeko, aplikatzen den arautegia bete beharko da eskaeran, eta, bereziki, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 53. artikuluan ezartzen duena eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan ezartzen duena. Baimena emateko eskumena daukan organoak idazki baten bidez egiaztatu beharko du eskaera aurkeztu eta onartu dela.

Aurrekoa gorabehera, sarbide-baimena (edo sarbide-baimena eta konexio-baimena) 2013ko abenduaren 27az gero eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen lortu duten titularrek eta eskaera errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik aurkeztu arren baimena oraindik lortu ez dutenek uko egin ahal izango diote baimenari (edo baimenei) edo aurkeztutako eskaerari errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen, eta energia garraiatzeko eta banatzeko sareetarako sarbide-baimena izapidetzeko aurkeztutako berme ekonomikoak itzuliko zaizkie. Organo substantiboak baimenari edo eskaerari uko egin zaiola jakinaraziko dio ingurumenaren arloko organoari, prozedura amaitzeko ebazpena eman dezan.

2. artikulua. *Energia elektrikoa iturri berriztagarrien bidez sortzeko instalazioak modu antolatuan garatzea.*

Apartatu bat eranstean zaio Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 14 artikuluari, 7 bis apartatua; hona testua:

«7 bis. Aurreko apartatuan arautzen den berariazko ordainsari-araubideaz gainera, Gobernuak, erregelamendu bidez, beste ordainsari-esparru bat ezarriko du energia elektrikoa iturri berriztagarrien bidez sortzeko, oinarritzat edukiko duena energiaren epe luzeko prezio finkoa, eraikitzen diren instalazio berrien diru-sarrerak eta finantzaketa errazago aurreikusteko eta egonkortzeko asmoarekin.

Ordainsari-esparru hori lehia-konkurrentziako prozeduren bidez ezarriko da; prozedura horietan, enkantearen xedea energia elektrikoa, instalatutako potentzia edo bien konbinazioa izango da, eta eskaintzen aldagaia energia hori ordaintzeko prezioa izango da.

Lehia-konkurrentziako prozeduren ardatza kostuen efizientzia lortzea izan behar da. Prozedura horietan, ekoizteko teknologien arteko bereizketa ezarri ahal izango da ezaugarri teknikoen, tamainaren, kudeagarritasun-mailaren, kokalekuaren, heldutasun teknologikoaren eta karbonorik gabeko ekonomiarako trantsizioa bermatzen duten irizpideen arabera, eta kontuan eduki ahal izango dira energia berriztagarrien erkidegoen ezaugarri bereziak, gainerako partaideen aukera berak eduki ditzaten ordainsari-esparruan sartzeko lehian. Hori guztia Batasunaren arautegiarekin bat etorritik egingo da.

Instalazio txikiak eta erakusketa-proiektuak aipatutako ordainsari-esparruak eskuratzeko lehia-konkurrentziako prozeduratik kanpo utzi ahal izango dira, erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorritik. Horrelako kasuetan, ordainsarien erreferentzia modura prozedura horien emaitza erabili ahal izango da, baldin eta kostuen efizientzia bermatzen bada».

3. artikulua. *1955/2000 Errege Dekretua aldatzea, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak eta energia elektrikoaren garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta horniketa-jarduerak arautzen dituen.*

1955/2000 Errege Dekretua aldatzen da, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak eta energia elektrikoaren garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta horniketa-jarduerak arautzen dituen, eta honela gelditzen da:

Bat. 115. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«115. artikulua. *Baimenaren beharra.*

1. Errege lege-dekretu honen 111. artikuluan aipatzen diren instalazio elektrikoak eraikitzeko, handitzeko, aldatzeko eta ustiatzeko honako administrazio-ebazpen hauek beharko dira:

a) Aldez aurreko administrazio-baimena, instalazioaren aurreproiektuari dagokiona; behar den kasuetan, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanarekin batera izapidetuko da, dokumentu tekniko moduan. Gainera, behar

den kasuetan, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko izapideak hasteko aukera ere emango du.

b) Eraikitzeko administrazio-baimena, instalazio-proiektuari dagokiona; horren bidez, titularrak instalazioa eraiki edo ezar dezake.

c) Ustiapen-baimena; horren bidez, proiektua gauzatu ondoren, instalazioa tentsioan jar daiteke eta merkatuan ustiatzen has daiteke.

Apartatu honen a) eta b) letretan zehazten diren baimenen eskaerak (aldez aurrekoa eta eraikitzekoa) elkarren jarraian, aldi berean edo batera egin ahal izango dira.

2. Aldez aurreko administrazio-baimena duten ekoizpen-instalazioen aldaketetarako, eraikitzeko administrazio-baimena lor daiteke aldez aurreko beste administrazio-baimen bat eskatu gabe, honako baldintza hauek betez gero:

a) Aldaketen ingurumen-eraginaren ebaluaziorik behar ez izatea, Ingurumen Ebaluaziorik buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

b) Aldaketak egiteko, ekoizteko instalazioak lurrik ez ukitzea baimendutako proiektuan zehaztutako poligonaletik kanpo, eta, ukituz gero, horretarako nahitaezko desjabetzerik egin behar ez izatea, eta hirigintza-bateragarritasunaren ziurtagiria izatea.

c) Instalaturako potentzia aldaketen ondoren ez izatea jatorrizko proiektuan zehaztutako potentzia baino ehuneko hamar handiagoa. Ulertu behar da aurrekoa gorabehera balitekeela gehiegizko potentziak inplikazioak edukitzea sarbide-baimenetan eta konexio-baimenetan, hamalagarren xedapen gehigarrian ezartzen denarekin bat etorritik.

d) Aldaketek ez ekartzea energia sortzeko teknologia aldatzea.

e) Aldaketek ez ekartzea aldaketarik ez instalazio nagusiaren eta ez lanean ari diren instalazio lagungarrien segurtasunean.

f) Aldaketak egiteko onura publikoaren deklaraziorik behar ez izatea.

g) Aldaketek eraginik ez edukitzea lanean ari diren energia elektrikoa sortzeko beste instalazio batzuetan.

3. Abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 53.2 artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako, honako ezaugarri hauekin bat datozen aldaketak ez dira funtsezkoak, eta ustiatzeko baimena baino ez dute behar, instalazioak eta berarekin lotutako ekipoen segurtasun-baldintzak betetzen dituztela frogatuz gero:

a) Aldaketak ez egotea Ingurumen Ebaluaziorik buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen aplikazio-eremuaren barruan.

b) Instalazioaren oinarriko ezaugarri teknikoetan (potentzia, transformazio-ahala edo garraio-ahala, eta abar) ez ekartzea instalazioaren potentziaren ehuneko 5etik gorako aldaketarik.

c) Aldaketarik ez ekartzea ez instalazio nagusiaren eta ez lanean ari diren instalazio lagungarrien segurtasunean.

d) Egin nahi diren aldaketak egiteko onura publikoaren deklaraziorik behar ez izatea.

e) Linea-aldaketek trazaduraren gaineko zortasunetan aldaketarik ez eragitea.

f) Linea-aldaketak, zortasunak aldatu arren trazadura aldatu gabe, interesdunen arteko adostasunarekin egitea (errege-dekretu honen 151. artikuluan ezartzen den bezala).

g) Euskarriak edo eroaleak okertu edo hautsi direla-eta horiek aldatzeko linea-aldaketak izatea, jatorrizko proiektuaren baldintzak betetzen dituztenak betiere.

h) Azpiestazio baten konfigurazioa aldatzea, kaleen eta posizioen kopurua aldatu gabe betiere.

i) Garraio edo banaketako instalazioei dagokienez, aldaketek ordainsarrietan ez eragitea».

Bi. Honela geratzen da idatzita 125. artikulua 1. apartatua:

«1. 122. artikulua araberaren aurkezten diren eskaerei informazio publikoaren izapidea aplikatuko zaie hogeita hamar egunez. Horretarako, laburpen-iragarkia argitaratuko da kasuan kasuko probintziako aldizkari ofizialean edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean eta *Estatuko Aldizkari Ofizialean*. Instalazioak probintzia bat baino gehiago ukitzen badu, Industria eta Energia Ministerioak instalazioaren sorburua dagoen probintzian daukan ordezkariak izapidetuko du iragarkiarekin argitalpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean*. Hogeita hamar eguneko epealdian interesdunek nahi dituzten alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 127. artikulua 2. apartatua:

«2. Aurrekoaren ondorioetarako, espedientea izapidetzeko eskumena daukan administrazioak aurreproiektuaren separata bat bidaliko du (instalazioaren ezaugarri orokorrak eta horien dokumentazio kartografikoa), eta, behar izanez gero, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanaren laburpena ere bai, hogeita hamar eguneko epealdian eskatutako baimena ematearen alde edo kontra dauden adieraz dezaten. Instalazioak eragiten dion ondasun edo eskubideren bat duten administrazioek, organismoek eta zerbitzu publikoko enpresen edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresek ez badute erantzunik ematen epealdi horretan, iritziko zaio administrazio hori ados dagoela instalazioa baimentzearekin».

Lau. 131. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Espedientea izapidetzeko eskumena daukan administrazioak aurreproiektuaren separata bidaliko dizkie proiektuaren eraginpeko ondasun edo eskubideren bat duten administrazioei, organismoei eta zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresei, dagozkien baldintza teknikoak ezar ditzaten hogeita hamar egun igaro baino lehen. Proiektuak eragiten dion ondasun edo eskubideren bat duten administrazioek, organismoek eta zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresek ez badute erantzunik ematen epealdi horretan, iritziko zaio administrazio hori ados dagoela proiektuan proposatzen diren zehaztapen teknikoekin».

Bost. 131.2 artikulua b) letra ezabatzen da.

Sei. Honela geratzen da idatzita 131. artikulua 4. apartatua:

«4. Eskatzaileak eragozpenik azalduz gero, baldintza teknikoak ezarri dituen administrazioari, organismoari edo zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresari helaraziko zaio, hamabost egun igaro baino lehen adieraz dezan erantzunarekin ados dagoela edo eragozpenak ipintzen dizkiola. Epealdi horretan administrazio, organismo edo zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresa horiek ez badute eragozpen-idazkirik egiten baldintzei buruz, iritziko zaio ados daudela eskatzaileak baldintzei emandako erantzunarekin».

Zazpi. 144. artikulua lehen paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Onura publikokoa izatea aitortzeko eskaerari, zehazki, informazio publikoaren izapidea aplikatuko zaio hogeita hamar egunez, eta aurreko artikuluan aipatzen den dokumentu teknikoari ere bai, harekin batera».

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 146. artikulua 1. apartatua:

«1. Informazio publikoaren izapidea egiten ari den bitartean, espedientea izapidetzeko ardura daukan organoak eskaeraren berri emango du, bai eta administrazioei, organismoei eta zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresei dokumentu teknikoaren zer atalek eragiten dien azaldu ere, hogeita hamar egun igaro baino lehen horiek dagozkien txostena egin dezaten.»

Instalazioak eragiten dion ondasun edo eskubideren bat duten administrazioek, organismoek edo zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresek ez badute erantzunik ematen epealdi horretan, iritziko zaio ez diotela jartzen inolako eragozpenik instalazioaren onura publikoaren deklarazioari».

Bederatzi. Hamalagarren xedapen gehigarria eranstean da; hona testua:

«Hamalagarren xedapen gehigarria. *Sarbide-baimena eta konexio-baimena eskatzen dituen ekoizpen-instalazioa eta horiek ematen zaizkiona bera diren zehaztea.*

1. Sarbide-baimena eta konexio-baimena eman diren instalaziorako baino ezin izango dira erabili. Gainera, instalazio bati sarbide-baimena eta konexio-baimena eman ahal izateko, ezinbestekoa da sarbiderako eta konexiorako prozedura abiarazi duen eskaeran aipatzen den instalazio bera izatea.

2. Instalazioa bera den zehazteko irizpideak II. eranskinean bildu dira. Irizpide horiek errege-dekretu baten bidez aldatu ahal izango dira, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak proposatuta.

3. Nolanahi ere, irizten bazaio instalazioa ez dela eskaerakoa bera, sarerako sarbidea eta konexioa lortzeko beste eskaera bat egin beharko da beste baimen batzuk eskuratu ahal izateko.

4. Baldin eta sarbide-baimena eta konexio-baimena eskatuta edota jasota dauzkan instalazio bat aldatzen bada eta, ondorioz, xedapen honetan ezartzen dena aplikatuz, zehazten bada ez dela eskaerako instalazio bera, titularrak sarbide-baimenaren eta konexio-baimenaren eskaera eguneratu beharko du, edo jasotako sarbide-baimena eta konexio-baimena eguneratu beharko ditu, aldatutako instalazioaren ezaugarrietara egokitzeko.

5. Sarbide-baimena eta konexio-baimena aurreko apartatuan aipatzen diren arrazoiengatik eguneratzeak inolaz ere ez du eragingo baimen horiek eman ziren data aldatzea; beraz, eman ziren data lehengo bera izango da.

Halaber, sarbide-baimenaren eta konexio-baimenaren eskaera aurreko apartatuan aipatzen diren arrazoiengatik eguneratzeak inolaz ere ez du eragingo eskaera egin den data aldatzea; beraz, eskaera-data sarbide-baimena eta konexio-baimena arautzen dituen prozeduran ezartzen denaren arabera zehaztutakoa izango da.

Sarbide-baimena dagoeneko eman zaion instalazio bat hibridatuz gero, honetara zenbatuko dira mugari administratiboak betetzeko epealdiak:

a) Hasierako sarbide-baimena daukan teknologia: epealdiak baimena eman denetik zenbatuko dira.

b) Hibridatutako atal berria, hasierako sarbide-baimenean azaltzen ez dena: epealdiak sarbide-baimena eguneratzen den egunetik zenbatuko dira».

Hamar. II. eranskina gehitzen da; hona testua:

«II. ERANSKINA

Sarbide-baimena eta konexio-baimena eskatuta edo jasota dauzkan ekoizpen-instalazioa eta beste bat bera diren zehazteko irizpideak

1. Eskatutako sarbide-baimenak eta konexio-baimenak emateko eta dagoeneko emandako sarbide-baimenen eta konexio-baimenen indarraldia zehazteko, sarbide-baimena eta konexio-baimena eskatuta edo jasota dauzkan elektrizitatea sortzeko instalazio bat eta beste bat bera direla iritziko zaio honako ezaugarri hauek aldatu ezean:

a) Ekoizteko teknologia. Lehen bezala instalazioa sinkronoa edo asinkronoa bada, iritziko zaio elektrizitatea sortzeko teknologia ez dela aldatu. Halaber,

413/2014 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden instalazioei dagokienez (413/2014 Errege Dekretua, ekainaren 6koa, energia berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik sortutako energia elektrikoa ekoizteko jarduera arautzen duena), instalazioa errege-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den taldean egonez gero, iritziko zaio teknologia ez dela aldatu. Energia biltegitratzeko elementuak gehitzeak ez dakar instalazioaren teknologia aldatzea.

b) Sarbide-kapazitatea. Eskatu edo emandako sarbide-kapazitatea ezin da izan hasierako sarbide-baimenean eskatu edo emandako sarbide-kapazitatea baino % 5 handiagoa. Horri dagokionez, sarbide-kapazitatea sarbide-baimenean edo horren eskaeran azaltzen dena izango da. Baimenean edo eskaeran zenbait potentzia agertzen badira eta ez bada argi zehazten zein den, sareratu daitekeen potentziarik handiena izango da sarbide-kapazitatea. Horren balioak ez dauka zertan izan ez instalatutako potentzia, ez instalazioaren potentzia izendatua. Hala ere, honako kasu honetan, sarbide-kapazitatea aldatu egin dela iritziko zaio: ekoizpen-instalazio baten proiektua bitan edo gehiagotan zatitzen bada eta horren ondorioz potentzia instalatua edo potentzia izendatua murrizteak eragiten badu sarbide-kapazitatea sarbide-baimenean edo horren eskaeran azaltzen dena baino gutxiago izatea (proiektu guztien potentzien batura, betiere, jatorrizko proiektuko potentzia izan behar da).

c) Kokapen geografikoa. Ekoizpen-instalazio baten kokapen geografikoa ez da aldatzen, baldin eta hasieran eta azkenean planteatutako ekoizpen-instalazioaren zentro geometrikoa, husteko azpiegiturak kontuan eduki gabe, 10.000 metro baino gehiago aldatzen ez bada.

Hibridazioa eginez gero, sarbide-baimenari eta konexio-baimenari dagokienez, instalazioa lehengo bera dela iritziko zaio, aurrez azaldutako irizpideak betez gero. Hala ere, dagoeneko zerbitzua ematen ari diren instalazioak edo dagoeneko sarbide-baimena daukaten proiektuak hibridatuz gero, a) baldintza lanean ari diren elektrizitatea sortzeko moduluei edo sarbide-baimenean aipatzen direnei baino ez zaie aplikatuko.

2. 2016ko apirilaren 14ko 2016/631 (EB) Erregelamenduak sare-kode bat ezartzen du sorgailuak sarera konektatzeko baldintzei buruz. Erregelamendu horretan ezartzen denarekin bat etorri ekoizpen-modulu bat baino gehiago daukaten elektrizitatea sortzeko instalazioen kasuan, ekoizteko teknologiaren baldintza, aurreko apartatuan aipatzen dena, instalazioaren ekoizpen-modulu guztiei aplikatuko zaie, eta, horren arabera, elektrizitatea sortzeko modulu horietako baten ekoizteko teknologia aldatzen bada, iritzi beharko zaio elektrizitatea sortzeko instalazioa ez dela bera».

II. TITULUA

Negozio-eredu berriak sustatzeko neurriak

4. artikulua. *Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea aldatzea.*

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea aldatzen da, eta honela gelditzen da:

Bat. 3. artikulua 13.b) letra aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«b) Ekoizpen-instalazioak —barnean hartuta huste-azpiegiturak, bigarren mailako garraiokoak, banaketakoak, hartuneak, linea zuzenak, eta 250 kW-etik gorako ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak—, autonomia-erkidego baten lurralde-eremua gairatzen dutenak, bai eta Estatuaren eskumeneko ekoizpen-instalazioetara konektatutako linea zuzenak ere».

Bi. 4. artikulua 4. apartu d) letra gehitzen zaio; hona testua:

«d) Indarreko plangintza-tresnan agertzen ez diren instalazio batzuk garraio-sarean eraikitzea ezinbestekoa izanez gero trantsizio energetikorako eta ekonomiaren elektrifikaziorako».

Hiru. 6. artikulua 1. apartu h), i) eta j) letrak gehitzen zaizkio; hona:

«h) Energia biltegitzeko instalazioen titularrek, hau da, honako instalazio hauen jabe diren pertsona fisikoek edo juridikoek: sortzen den elektrizitatea geroago erabiltzeko gordetzeko erabiltzen diren instalazioak edo energia elektrikoa biltegitzeko moduko energia bihurtu edo gero atzera ere energia elektriko bihurtzeko erabiltzen diren instalazioak.

Hori guztia gorabehera, 17/2013 Legeak 5. artikuluan ezartzen duena bete beharko da (17/2013 Legea, urriaren 29koa, uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistema elektrikoetan hornidura bermatzekoa eta lehia gehitzekoa), eta energia sortzen dutenek, kontsumitzen dutenek edo energia garraiatzeko eta banatzeko sareen titularrek horrelako instalazioak eduki ditzakete beren izaera galdu gabe.

i) Agregatzaile independenteek; hau da, energia elektrikoa ekoizteko merkatuan parte hartzen duten, agregazio-zerbitzuak ematen dituzten eta bezeroaren hornitzailearekin inolako loturarik ez duten horiek. Eta agregazioa honi esaten diogu: kontsumitzaileen, ekoizleen edo biltegitze-instalazioen askotariko kontsumoak edo haiek sortutako elektrizitatea konbinatzeko eta energia elektrikoaren merkatuan saltzeko edo erosteko pertsona fisiko zein juridikoek duten jarduerari.

j) Energia berriztagarrien erkidegoek. Erkidego horiek entitate juridiko autonomoak dira, bazkideen edo kideen parte-hartze ireki eta borondatezkoan oinarrituak eta haiek kontrolatuak; bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak zein toki-agintariak izan daitezke (udalak barne), eta erkidegoak garatu dituen eta bereak dituen iturri berriztagarriko energia-proiektuetatik hurbil daude; erkidegoon helburu nagusia bazkideei edo kideei edo diharduten inguruari ingurumen-onurak, onura ekonomikoak edo gizarte-onurak ekartzea da, finantza-irabaziak gabe».

Lau. 14. artikulua 10. apartua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«10. Erreferentziako merkaturatzeari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, merkaturatze-jardueraren ordainsaria alderdiek libreki adostuko dute beren artean.

Kontsumitzaileek eta energia biltegitzeko instalazioen titularrek, dela zuzenean, dela beren merkaturatzailearen bitartez, dela agregatzaile independente baten bitartez, ekoizpen-merkatuan sartzen diren zerbitzuetan parte hartzeagatik dagozkien diru-sarrerak eskuratu ahal izango dituzte, erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorritik».

Bost. 33. artikulua 12. apartua gehitzen zaio; hona testua:

«12. Energia elektrikoa sortzeko instalazio baten sarbide-baimena duten titularrek, baldin eta instalazioa hibridatzen badute elektrizitatea sortzeko iturri berriztagarri primarioak erabiltzen dituzten moduluak gehituz edo energia biltegitzeko instalazioak txertatuz, konexio-puntu bera eta emandako sarbide-kapazitatea baliatuz sareratu dezakete energia elektrikoa. horretarako, ezinbestekoa da instalazio berriak aplikatzen zaizkion ezaugarri teknikoak betetzea.

Gainera, sarbide-baimena eskatu ahal izango da zenbait teknologia konbinatzen diren instalazio hibridoetarako, baldintza hau betez gero: gutxienez teknologia horietako baten energia-iturri nagusia berriztagarri primarioa izan behar da edo energia biltegitzeko instalazioak ekarri behar ditu berekin».

Sei. 49. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da idatzita:

«1. Enpresa elektrikoek, kontsumitzaileek eta sistemaren operadoreak, beste agente batzuekin koordinatuta, eskari elektrikoaren kudeaketa hobetzeko neurriak hartu eta aplikatu ahal izango dituzte, bai eta karga-kurba optimizatzen eta/edo energiaren eraginkortasuna eta energia-aurrezkoa lortzen lagunduko duten neurriak ere.

Kontsumitzaileek eta biltegitratze-instalazioen titularrek (dela zuzenean, dela merkaturatzaileen edo agregatzaile independenteen bitartez), hala badagokie, ekoizpen-merkatuko edo eskariaren kudeaketako zerbitzuetan parte hartu ahal izango dute, erregelamendu bidez erabakitakoari jarraikiz».

Zazpi. 53. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Lege honetan arautzen diren garraio-ko, banaketako eta ekoizpeneko instalazio berriak, linea zuzen berriak eta 250 kW-etik gorako potentziako ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura elektriko berriak martxan jartzeko edo lehendik daudenak aldatzeko, honako administrazio-baimen hauek lortu behar dira:

a) Administrazioaren alde aurreko baimena; instalazioaren aurreproiektuarekin izapidetuko da, dokumentu tekniko moduan, eta, hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioarekin batera, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz, eta baimendutako enpresari eskubidea emango dio instalazio jakin bat baldintza jakin batzuetan egiteko.

Sortze-instalazioen administrazio-baimena ez da emango, baldin eta titularrak ez baditu alde aurretik lortzen garraio- edo banaketa-sareetarako sarbide- eta konexio-baimenak.

b) Eraikitze-ko administrazio-baimena; horren bitartez, titularrak instalazioa eraiki dezake, bete beharreko eskakizun teknikoak betez gero.

Baimen hori eskatzeko, titularrak gauzatzeko-proiektua aurkeztuko du, aplikatu beharreko araudia betetzen duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

Ebazpena emateko garaian, zerbitzu publikoak edo interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten administrazio publiko, organismo edo enpresen baldintza teknikoak soilik aztertu beharko dira (ez bestelakoak), eta erakunde horien jabetzakoak diren eta instalazioaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideei dagokienez soilik.

Artikulu honen 1. apartatuaren a) eta b) letretan zehaztutako baimenak izapidetu eta ebazteko prozedurak elkarren jarraian, aldi berean edo batera egin ahal izango dira.

c) Ustiapen-baimena; proiektua gauzatu ostean, instalazioak tentsioan jartzea eta ustiatzen hastea ahalbidetzen du.

Hartuneen kasuan, apartatu honetan aurreikusitako administrazio-baimenak lortzea eska daiteke, administrazio publikoek beren eskumen-esparruan erregelamendu bidez ezartzen dituzten baldintzetan.

Energia garraiatzeko sareko edo banatzeko sareko instalazio mugikor bat bi urte baino aldi laburrerako ezarri behar izanez gero sare horietara konektatuta, ustiatzeko baimena eman aurretik, eraikitze-ko administrazio-baimen bat lortu beharko da, ezarpen-baimena izenekoa. Ez dute beharko alde aurreko administrazio-baimenik. Ezarpen-baimenari eranskinean xedatzen dena aplikatuko zaio; eranskina erregelamenduz aldatu ahal izango da.

Energia sortzeko instalazioen administrazio-baimenetan ezartzen den potentzia instalatua sarbide-baimenean ageri den sarbide-kapazitatea baino handiagoa izan daiteke. Elektrizitatea sortzeko instalazioen sarbide-kapazitatea sareratu dezaketen gehieneko potentzia aktiboa da. Berariazko ordainsari-araubidea daukan instalazio bati eragiten dion administrazio-baimen bat aldatzen bada, aldaketaren berri eman

behar da, berariazko ordainsari-araubidearen erregistroan inskribatzeko, eta aldaketaren ondorioz sortzen den energia bereizteko ordainsarietarako».

Zortzi. 53. artikulua 2. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Administrazio publiko eskudunak erabaki dezake garraioko, banaketako eta produkzioko instalazioetan, linea zuzenetan eta 250 kW-etik gorako potentziako ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura elektrikoetan aldaketa batzuk –garrantzitsuak ez direnak– egiteko ez dela behar 1.a) eta 1.b) letretan arautzen den aldez aurreko administrazio-baimena».

Bederatzi. 53. artikulua 3. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio; hona testua:

«3. Halaber, Gobernuak, erregelamendu bidez, artikulua honen 1. apartatuaren a) eta b) letretan arautzen diren baimenak lortu beharretik salbuets ditzake xedetzat ikerkuntza eta garapen teknologikoa dauzkaten instalazio elektriko jakin batzuk. Nolanahi ere, proiektu bat aldez aurreko administrazio-baimena lortu beharretik salbuesteko, ezinbestekoa da proiektuak ingurumen-inpaktuaren adierazpena behar ez izatea.

Proiektu bat I+G+b arlokatzat jotzeko aurreko paragrafoan ezartzen diren ondorioetarako, hala agertu behar da Europar Batasuneko edo kasuan kasuko estatuko berariazko deialdi batean, edo, bestela, Energiaren Estatu Idazkaritzak berariaz onartu behar du halakoa dela».

Hamar. 54. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Energia elektriko sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioak eta 250 kW-etik gorako potentziako ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura elektrikoak herri-onurakotzat jotzen dira, horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeari eta bide-zorra baliatzeari dagokienez».

Hamaika. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita hirugarrena; hona testua:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Saiakuntza-banku arautzaileak.*

Lege honen itzalpean, eta bertan ezartzen diren helburuak bete nahian, bai eta energiaren eta klimaren eta ingurumen-iraunkortasunaren arloetako helburuak ere, saiakuntza-banku arautzaileak ezarri ahal izango dira sektore elektrikoaren inguruko ikerketa eta berrikuntzarako proiektu pilotuak garatzeko.

Horretarako, proiektu pilotua Gobernuaren errege-dekretu baten bidez egindako deialdi baten itzalpean egon behar da. Deialdian xedapen bereziak ezarri ahal izango dira, eta, nahi izanez gero, sektore elektrikoaren erregulazioaren salbuespen batzuk ere bai; gainera, ezin izango da urratu sistema elektrikoaren jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioaren printzipioa. Proiektuetan, mugatuta ageri behar dira bolumena, gauzatzeko aldia eta eremu geografikoa».

Hamabi. Eranskin bat gehitzen da; hona:

«ERANSKINA

Ezartzeko administrazio-baimena

Instalazio mugikorrek toki jakin batean ezartzeko administrazio-baimena eduki behar dute. Administrazioaren baimen hori lortu nahi dutenek instalazioa gauzatzeko proiektu bat eta hura ezartzeko proiektu bat aurkeztu behar dizkiote organo eskudunari, eta, horrez gainera, proiektuari buruzko beste txosten bat, instalazioa ezarri nahi duten tokiko udalak egina. Ezartzeko administrazio-baimena emateko

eskumena daukan administrazioak emango du hari buruzko ebazpena, adierazitako dokumentazioa aurkezten denetik hiru hilabete igaro baino lehen.

Salbuespen gisa eta larrialdietan, ezartzeko administrazio-baimena emateko eskumena daukan administrazioak behin-behineko baimena eman ahal izango du, baina beharrezkoa den aldirako bakar-bakarrik, eta ezartzeko administrazio-baimena lortzen den arte, instalazio elektriko mugikor bat ezartzeko, eskualde jakin batean energiaren hornidura bermatu ahal izateko. Nolanahi ere, behin-behineko baimenaren iraunaldia ezin da izan urtebete baino luzeagoa. Baimenaren berri eman beharko zaio instalazioa ezarriko den udalerriko udalari».

III. TITULUA

Energia-efizientzia sustatzeko neurriak

5. artikulua. *Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatzea.*

Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da:

Bat. 69. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«69. artikulua. *Betebehar-sistema nazionala sortzea.*

1. Energia-efizientziako betebeharren sistema nazionala sortzen da; horren arabera, gasa eta elektrizitatea merkaturatzen duten enpresei, petrolio-produktuen handizkako operadoreei eta petrolioaren gas likidotuen handizkako operadoreei –aurrerantzean, betebehar-sistemaren behartutako subjektu esango diegu– energia aurrezteko urteko kuota bat ezarriko zaie eremu nazionalan; kuota horrek aurrezteko betebeharrak izena du.

Horren ondoriozko aurrezteko betebeharrak –gehituta sistemaren iraupeneko aldi osorako– bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikuluan Espainiari ezarritako helburuarekin, betiere zuzentarau horren 7 ter artikuluan bildutako neurri alternatiboek eragindako aurrezkiak kenduta (zuzentarau horren bitartez 2009/125/EE eta 2010/30/EE zuzentarauak aldatu ziren eta 2004/8/EE eta 2006/32/EE zuzentarauak indargabetu). Harrezkero, 2018ko abenduaren 11ko (EB) 2028/2002 Zuzentarauak aldatu du.

2. Energia-efizientziako betebehar-sistema nazionalaren iraunaldia honako hau izango da: Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik 2030eko abenduaren 31ra arte.

3. Espainiari esleitutako helburuak betetzeko bidean egindako ibilbidea egiaztatzearen, sistema berraztertu ahal izango da 2017ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arteko aldirako, 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko aldirako eta 2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arteko aldirako».

Bi. 70. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«70. artikulua. *Nola kalkulatu sistemara behartutako subjektuen aurrezki-betebeharrak.*

1. Urtero zehaztuko dira urteko energia-aurrezkiaren helburua, sistemara behartutako subjektu bakoitzaren aurrezki-kuotak edo aurrezki-betebeharrak eta horien finantza-baliokideak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren agindu baten bidez, Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak erabakia hartu ondoren.

Sistemara behartutako subjektu bakoitzaren urteko energia-aurrezkiaren helburua kalkulatzeko, honako eragiketa hau egin behar da: 2015-2020ko aldiko urteko batez besteko aurrezkiaren helburua sistemara behartutako subjektu guztien urteko batez besteko salmenta-bolumenaz zatitu (Energia Efizientziaren Funts Nazionalerako ekarpenak ezartzen dituzten eta argitaratu diren ministro-aginduetan aipatzen da) eta horren emaitza subjektu bakoitzaren n-2 urteko energia-salmenten kopuruaz biderkatu (n = betebeharraren erreferentzia-urtea), eta horren emaitza faktore batez biderkatu (faktorea alda daiteke 2021-2030eko aldirian). Helburua hau da: 2012/27/EB Zuzentarauak 7. artikuluan ezartzen duen energia-aurrezkiaren lortzea 2021-2030eko aldirian (zuzentarau hori (EB) 2018/2002 Zuzentarauak aldatu du).

Beraz, sistemara behartutako subjektu bakoitzaren urteko energia-aurrezkiaren helburua honela kalkulatu da:

$$\text{Betebeharpekoaren energia-salmentak (n - 2 urtea)} \left(\frac{\text{2015-2020ko aldiko urteko batez besteko aurrezpen-helburua}}{\text{Betebeharpeko guztien 2015-2020ko aldiko batez besteko salmenta-bolumena}} \right) \times C$$

Azalpena:

Subjektu bakoitzaren energia-salmentak, aurreko paragrafoan aipatzen direnak, honako hauek dira:

Gasaren eta elektrizitatearen merkaturatzaileak: betebeharraren urtea baino bi urte aurrerago azken kontsumitzaileei estatu osoan egin zaizkien azken energiaren salmenten bolumena, enpresaren jarduera osoa kontuan hartuta, GWh-tan adierazia.

Petrolio-produktuen eta petrolioaren gas likidotuen handizkako operadoreak: betebeharraren urtea baino bi urte aurrerago azken kontsumitzaileei, batetik, eta txikizka banatzeko asmoarekin, bestetik, estatu osoan egindako azken energiaren salmenten bolumena, enpresaren jarduera osoa kontuan hartuta, GWh-tan adierazia.

C koefizientea, 2012/27/EB Zuzentarauak 7. artikuluan ezartzen duena 2021-2030eko aldirian bete ahal izateko urteko energia-aurrezkiaren helburua zenbat igo behar den, horren proportziokoa izango da (zuzentarau hori 2018/2002 (EB) Zuzentarauak aldatu du).

Sistemara behartutako subjektu guztien urteko aurrezki-betebeharren batura eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren aginduan ezartzen den urteko energia-aurrezkiaren helburua bat izango dira. Sistemara behartutako subjektu guztien urteko aurrezki-betebeharren batura ezin da izan 2012/27/EB Zuzentarauak 7. artikuluan 2021-2030eko aldirako ezartzen duen urteko energia-aurrezki metatua baino gehiago (zuzentarau hori 2018/2002 (EB) Zuzentarauak aldatu du).

Behartutako subjektu batek handizkako merkaturatzaile edo operadore gisa jarduteari uzten badio betebeharraren urtean, lege honen ondorioetarako, behartutako subjektutzat hartuko da betebeharraren urte osoan. Horren harira, sistemara behartutako subjektuak jarduerari utzi diola frogatu beharko dio Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiari, eta hark Energia Eraginkortasuneko Funts Nazionalaren organo kudeatzaileari jakinaraziko dio.

Behartutako subjektu bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da hark emandako salmenta-datuak eta betebeharraren urtearen aurreko urtean ministro-aginduen bidez finkatutako kopuruaren arteko zuzenketari dagokion doikuntza, positiboa zein negatiboa.

2. Ondorio horietarako, behartutako subjektuek aurreko urteari dagozkion energia-salmentaren datuak igorri beharko dituzte (GWh-tan adierazita) urtero, ekainaren 30a baino lehen, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusira».

Hiru. 71. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«71. artikulua. *Betebeharrak betetzea eta Energia Aurrezkiaren Ziurtagiriak.*

1. Energia aurrezteko urteko betebeharrak betetzeko, behartutako subjektuek finantza-ekarpen bat egin beharko dute urtero hurrengo artikuluan aipatzen den Energia Efizientiaren Funts Nazionalan. Ekarpenaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako eragiketa hau egingo da: urteko aurrezki-betebeharra bider ezartzen den finantza-baliokidetasuna.

Finantza-betebehar hori hiru hilabete ordaindu beharko da (kopuru bereko lau ordainketa), honako muga-egun hauetarako: lehena, martxoaren 31rako; bigarrena, ekainaren 30erako; hirugarrena, irailaren 30erako, eta laugarrena, abenduaren 31rako. Salbuespena da betebeharraren azken urtea: kopuru bereko bi ordainketa egin beharko dira; lehena, martxoaren 31rako, eta bestea, ekainaren 30erako.

Finantza-baliokidetasuna Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren agindu baten bidez finkatuko da, urteko aurrezki-helburua betetzeko ezinbestekoak diren inbertsioak jardun-sektore guztietan mobilizatzeko aurreikusitako batez besteko kostuan oinarrituta.

2. Bestela, eta Gobernuak erregelamendu bidez arautzen duenarekin bat etorritik, mekanismo bat ezarri ahal izango da sistemaren betebeharrak betetzeko behar den besteko energia-aurrezpena lortu dela egiaztatzeko. Mekanismo horren funtsa izango da energia-efizientzia sustatzeko egiten diren jarduketan ondoriozko energia-aurrezpenaren ziurtagiriak (EAZ) aurkeztea.

3. Lege honetan eta berau garatzen duten xedapenetan energia-efizientiako betebeharren sistema nazionalari dagokionez ezartzen diren betebeharrak ez betetzeak eragiten dituen zehapen-prozedurak ikuskatzea eta izapidetzea Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari dagokio».

Lau. 72. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«72. artikulua. *Energia Efizientiaren Funts Nazionala.*

1. Energia Efizientiaren Funts Nazionala sortu da, nortasun juridikorik gabeko funtsa, eta beraren xedea energia-efizientiako ekimen nazionalak finantzatzea da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 20. artikulua betez (2018/2002 (EB) Zuzentarauak aldatu egin du zuzentarau hori).

2. Energia Efizientiaren Funts Nazionalak ekonomiaren, finantzaren, asistentzia teknikoaren, prestakuntzaren eta informazioaren arloko babes-mekanismoak edo bestelako neurriak finantzatuko ditu, hainbat sektoretan energia-efizientzia areagotzearen eta, hartara, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikuluan ezartzen den energia-aurrezkiaren helburu nazionala betetzen laguntzeko (2018/2002 (EB) Zuzentarauak aldatu egin du zuzentarau hori).

3. Funts horren diru-horniduren kargura ordaindu ahal izango dira Energia Aurrezteko Sistema Nazionalaren kudeaketak eragiten dituen gastu guztiak. Horretarako, honako hauek ere kudeaketa-gastutzat hartuko dira, besteak beste: azterketak eta txostenak egitea; jarduteko neurriak zehazteko laguntza teknikoa, eta helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko, kontrolatzeko eta egiaztatzeko laguntza teknikoa».

Bost. 73. artikuluan 1. eta 3. apartatuak aldatzen dira eta honela idatzita geratzen dira:

«1. Energia Efizientiaren Funts Nazionala Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari atxikita egongo da, Energiaren Estatu Idazkaritzaren bitartez».

«3. Funtsa gainbegiratzea eta kontrolatzea Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari atxikitako Jarraipen eta Kontrol Batzorde bati dagokio, Energiaren Estatu Idazkaritzaren bitartez. Batzordearen burua horren titularra izango da, eta honako hauetako titularrek osatuko dute batzordea:

- a) Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza.
- b) Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Erakundearen (IDAE, MP) Zuzendaritza Nagusia.
- c) Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoa.
- d) Gobernuko Lehendakartzaren Kabineteko Gai Ekonomikoetako eta G20ko Saila.
- e) Honako ministerio-departamentu hauetako zuzendari nagusi kargua duen ordezkarri bana:

- 1.a Ogasun Ministerioa.
- 2.a Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioa.
- 3.a Ekonomi Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioa.

Batzordeko idazkaria batzordeburuak izendatuko du, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energiaren Estatu Idazkaritzako zuzendariorde nagusiaren mailako funtzionarioen artean. Gobernuak, errege-dekretu bidez, batzordearen osaera aldatu ahal izango du».

Sei. 74. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Funtsak honako zuzkidura hauek izango ditu:

Batasunaren EGEF egitura-funtsetatik jasotako baliabideak, funtsaren baliabideekin gauzatutako jarduketak elkarrekin finantzatzeko jasotakoak.

Energia-efizientziako betebeharrak sistema nazionalera behartutako subjektuek 2014ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arteko aurrezki-betebeharrak likidatzeko edo betetzeko egiten dituzten ekarpenak.

Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ezartzen diren beste ekarpen batzuk.

Jardun-neurriak aplikatuz egiten diren banako jarduketak finantzatzeko emandako maileguak (printzipala eta sortutako interesak) itzultzeak eragiten dituen eragiketa berriak finantzatzeko baliabideak (diru kopuruak), eta onuradunek eman zaizkien laguntzei ezarri zaizkien baldintzak ez betetzeagatik dirua itzularazteko abiarazten diren prozeduren ondorioz funtsaren altxortegian sartzen diren gainerako beste diru kopuru guztiak.

Energia-efizientziako eta energia aurrezteko neurriak ezartzea xede duten jardunak finantzatzera bideratutako beste edozein baliabide, eta aurreko ekitaldietako ekarpenen gerakinak, egonez gero».

Zazpi. 79. artikulua 1.a), 2.a), 3.a) eta 3.e) paragrafoak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

«1.a) Energia Efizientiaren Funts Nazionalari egin beharreko urteko ekarpen guztia ez egitea betebeharra dagoen aldian, urteko ekarpena 5 milioi eurotik gorakoa baldin bada».

«2.a) Energia Efizientiaren Funts Nazionalari egin beharreko urteko ekarpena ez egitea betebeharra dagoen aldian, urteko ekarpena 500.000 eurotik 5 milioi eurora bitartekoa baldin bada».

«3.a) Energia Efizientiaren Funts Nazionalari egin beharreko urteko ekarpena ez egitea betebeharra dagoen aldian, urteko ekarpena 500.000 euro edo gutxiago baldin bada».

«3.e) Energia-salmentari buruzko datuak edo Administrazioak eskatutako beste edozein informazio berandu jakinaraztea, baldin eta, horren ondorioz, aurrezki-betebeharrak zehaztea zailtzen bada, baina eragotzi ez. Hori dela eta, 83. artikuluan

aipatzen den arau-haustearen preskripzio-aldia Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren agindua (70. artikuluan aipatzen dena) *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen».

Zortzi. 83. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«83. artikulua. *Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.*

1. Kapitulu honetan ezarritako arau-hausteen preskripzio-epa hiru urtekoa izango da arau-hauste oso larrietarako, bi urtekoa arau-hauste larrietarako eta sei hilabetekoa arau-hauste arinetarako.

2. Kapitulu honetan ezarritako zehapenen preskripzio-epa hiru urtekoa izango da arau-hauste oso larrietarako, bi urtekoa arau-hauste larrietarako eta urtebetekoa arau-hauste arinetarako.

3. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-epaek zenbatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 30. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da».

Bederatzi. 84. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Energiaren Estatu Idazkaritzako dagokion zuzendaritza nagusiaren organoaren egitekoa izango da zehapen-prozedurak hastea eta instruitzea, bai eta artxibatzea ere, zehapen-prozedurak energia-efizientziako betebeharren sistema nazionalaren eremuan eta auditoretza energetikoen arloan, zerbitzu-hornitzaileen eta auditore energetikoen akreditazioaren arloan, energia-horniduraren efizientziaren sustapenaren arloan eta energia-kontsumoen kontabilizazioaren arloan tipifikatutako arau-hauste administratiboen ondoriozkoak direnean».

Hamar. 86. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

«86. artikulua. *Zehapen-prozedura.*

1. Lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko prozedurari dagokionez, instrukzioaren eta ebazpenaren faseak behar bezala bereiziko dira, eta, prozeduran, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa bete beharko da, kapitulu honetako gainerako artikuluetan xedatzen diren berezitasunak berezitasun.

2. Instrukzioko eta izapidetzeko faseak behar bezala bereizita egongo diren zehapen-prozedura horietan, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hemezortzi hilabetekoa izango da, prozedura hasten den egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan, prozedura iraungitzat joko da eta jarduketak artxibatzeko aginduko da; horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 95. artikuluan ezartzen dituen ondorioak sortuko ditu».

IV. TITULUA

Jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko presako beste neurri batzuk

6. artikulua. *Toki-entitateen 2019ko superabitaren xedea eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 2020ko aplikazioa.*

1. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan ezartzen diren ondorioekin, toki-erakundeek 2020. urtean xedapen gehigarri horren 2. apartatuan ezartzen diren erregelen ondoriozko 2019ko saldo positiboaren ehuneko 7 erabili ahal izango dute, gehienez ere, ibilgailu elektriko hutsetan edo ZERO ingurumen-etiketa duten ibilgailuetan egiten diren inbertsio-gastuak finantzatzeko eta erositako ibilgailuak kargatzeko

azpiegituretan egiten diren inbertsio-gastuak finantzatzeko, baldin eta ibilgailuaren xedea zerbitzu publiko hauetako bat bada: hondakinak bildu, ezabatu eta tratatzea; segurtasuna eta ordena publikoa; babes zibila; suteen prebentzioa eta su-itzaltzea; bidaiarien garraioa. Frogatzen bada ez dagoela ZERO etiketa duen ibilgailurik zerbitzuaren gutxieneko beharrianak betetzen dituenik, ECO etiketa duten ibilgailuetan egiten diren inbertsio gastuak finantzatzeko ere erabili ahal izango dute saldo positiboaren ehuneko hori.

2. Nolanahi ere, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarrian eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak —martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak— hamaseigarren xedapen gehigarrian ezartzen dituzten erregelak, baldintzak eta betekizunak aplikatuko dira, toki-erakunde bakoitzak martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 20.1 artikulua onduz egindako aplikazioari kalterik egin gabe.

3. Ogasun Ministerioako organo eskudunari ahalmena ematen zaio informazio hori biltzeko erabili beharreko formulario normalizatuak finkatzeko, hala badagokio, eta eman beharreko informazioa zehazteko eta bidaltzeko prozedura eta epealdia finkatzeko behar diren jarraibideak edo ebazpenak emateko.

Toki-korporazio bakoitzaren informazio ekonomiko-finantzarioa kontu-hartzaitzak edo horren egitekoak egiten dituen unitateak bidali beharko du, eta, horretarako, onartutako ziurtagiri batean oinarritutako sinadura elektronikoa aurreratua erabili beharko du, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearekin bat etorriz.

Ogasun Ministerioak errege lege-dekretu honetan ezartzen denaren arabera bidaltzen den informazioa zabaltzeko edo argitaratu ahal izango du; berak erabakiko du nola, zer eta non zabaltzen edo argitaratzen duen.

Informazioa emateko betebeharrak bai ezarritako epeei, bai datuen edukia zuzentasunari eta egokitasunari, bai datuak bidaltzeko moduari dagokienez ez betetzeak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak 20. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dituen neurriak ezartzea ekar dezake, toki-korporazioari hamar egun balioduneko epealdian betetzeko errekerimendua egin ondoren. Erantzukizun pertsonala dagoen edo ez alde batera utzi gabe, Ogasun Ministerioak egindako errekerimenduen berri eman ahal izango du, edo ez direla betetzen jakinarazi.

7. artikulua. *Sozietateen gaineko zergaren ordainketan kenkaria aplikatzea ibilgailuen industriako balio-kateko ekoizpen-prozesuetan berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.*

2020. eta 2021. urteetan hasten diren zergaldietan, berrikuntza teknologikoko jardueretan egindako gastuen ehuneko 25ekoa izango da Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeak 35. artikulua 2. apartatuaren c) letran aipatzen duen kenkaria, baldin eta jarduera horiek aurrerapen teknologikoa ekarri badute ibilgailuen industriako balio-kateko ekoizpen-prozesu berriak lortzeko zereginean, edo hobekuntza nabarmenak ekarri badituzte orain arteko ekoizpen-prozesuetan.

Aurreko paragrafoan arautzen den kenkaria aplikatzeko, entitateak txosten bat eskuratu behar du, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeak 35. artikulua 4. apartatuaren a) letran ezartzen duenarekin bat etorriz, adierazten duena jarduera berrikuntza teknologikoa dela eta haren bidez aurrerapen teknologikoa lortu dela ibilgailuen industriako balio-kateko ekoizpen-prozesu berriak lortzeko zereginean edo hobekuntza nabarmenak egin direla orain arteko ekoizpen-prozesuetan.

8. artikulua. *Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzea.*

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 34. artikulua 2., 4. eta 5. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako agiriarekin batera, eta eskaerak honako informazio hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Proiektuaren definizioa eta ezaugarri espezifikoak, tartean haren kokapena, bideragarritasun teknikoa eta ingurumenean izan dezakeen eragina, bai eta proiektuak istripu larri edo hondamendien aurrean duen kalteberatasunaren ondorioz ingurumen-faktoreetan aurreikus daitezkeen ondorioen atariko azterketa ere.

b) Aintzat hartutako alternatiba nagusiak, eta haietako bakoitzak izan ditzakeen inpaktuen azterketa.

c) Proiektuak eragindako lurraldearen eta ingurumenaren diagnostikoa.

Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioaren egokitasuna egiaztatu ondoren, ingurumen-organuari igorriko dio, hamar laneguneko epean, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egin dezan.

Sustatzaileak eskaerarekin batera aurkezten duen hasierako dokumentazioan ez badago eskatzen den informazioa edo dagoen informazioa ez bada nahikoa eraginpeko administrazio publikoei kontsultak egin ahal izateko, errekerimendua bidaliko zaio falta den informazioa eman dezan edo behar den dokumentazioa aurkez dezan hamar egun pasatu baino lehen (ezin izango da luzatu epe hori), eta adieraziko zaio eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela».

«4. Eragindako administrazio publikoek eta pertsona interesdun kontsultatuek gehienez ere hogeita hamar laneguneko epean eman beharko dute irizpena, dokumentazioa jasotako egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori amaitzen bada haien adierazpenik jaso gabe, prozedurak aurrera egingo du, baldin eta ingurumen-organook ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egiteko irizpen-elementu nahikoak baditu. Kasu horretan, lehen aipatutako adierazpenak geroago jasotzen badira, ez dira kontuan hartuko.

Ingurumen-organook irizpen-elementu nahikoak ez baditu, bai eragindako administrazio publikoen txostenik jaso ez delako, bai txosten horiek jaso arren erabakitze nahikoak ez direlako, txostena egin behar zuen organoaren gainetik hierarkikoki hurrena dagoen organoaren titularrari pertsonalki eskatuko dio organo eskudunari agintzeko, hamar egun balioduneko epean, eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita, dagokion txostena entrega dezan hamar egun balioduneko epean. Nolanahi ere, atzerapenaren ardura daukanak erantzukizunak izan ditzake.

Egindako eskaera organo substantiboari eta sustatzaileari jakinaraziko zaie, eta irismen-agiria egiteko epea etenda geratuko da.

Aurreko paragrafoan ezartzen den epean ingurumen-organook ez baditu jasotzen eraginpeko administrazio publikoen txostenak, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko behar direnak, organo horrek irismen-agiria egingo du, eta bertan adieraziko du eskatutako txostenak falta direla, sustatzaileak eta organo substantiboak horren berri eduki dezaten.

Nolanahi ere, sustatzaileak administrazio eskudunari eskatu ahal izango dio txostena egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 9/1998 Legeak 29.1 artikuluan ezartzen duen prozeduraren bidez».

«5. Kontsultei emandako erantzunak jaso ondoren, ingurumen-organook ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egin eta sustatzaileari eta organo substantiboari igorriko die, egindako kontsulten ondorioz jasotako erantzunekin batera, 33.2.a) artikuluan ezarritako epean.

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria bi urtean izango da baliozkoa, sustatzaileari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera. Aldi horretan organo substantiboari ez bazaio aurkezten ingurumen-inpaktuaren azterketa ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura hasteko, irismen-agiriak baliozkotasuna galduko du».

Bi. 43. artikuluari 2., 3., 4. eta 5. apartatuak gehitzen zaizkio: hona:

«2. Sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldia luzatzeko eskatu ahal izango du aurreko paragrafoan ezartzen den epea amaitu baino lehen. Sustatzaileak egindako eskaerak lau urteko indarraldia etengo du.

3. Eskaera hori ikusita, ingurumen-organoak erabaki ahal izango du ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldia luzatzea, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko oinarritzat hartutako elementuetan funtsezko aldaketarik gertatu ez bada. Horrenbestez, bi urtez luzatu ahal izango da indarraldia. Epe horretan proiektuari edo jarduerari ekiten ez bazaio, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura.

4. Ingurumen-organoak luzapen-eskaerari buruzko erabakia hiru hilabeteko epean hartuko du, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Ingurumen-organoak txostena eskatuko die eragindako administrazio publikoei ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko baliatutako funtsezko elementuei buruz. Administrazio horiek hogeita hamar egun igaro aurretik eman beharko dute irizpena, eta epe hori hamabost egun luzatu ahal izango da, behar bezala justifikatutako arrazoiak adieraziz gero; hamabost egun horietan, eskaera ebazteko epea etenda egongo da.

5. Epe horretan ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldiaren luzapenari buruzko erabakirik hartzen ez badu, luzapen-eskaera ezetsizat hartu beharko da».

Hiru. 47. artikulua 2., 8. eta 9. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Ingurumen-organoak, sustatzailearengandik jasotako informazioa, egindako kontsulten emaitza eta, halakorik bada, beste legedi batzuen arabera egindako ingurumen-ondorioen ebaluazioen edo atariko egiaztapenen emaitzak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren txostena emango du; bertan, modu arrazoituan, eta III. eranskineko irizpideei jarraituz, honako hau xedatu ahal izango du:

a) Proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaiola, ingurumenean ondorio adierazgarriak sor litzakeela eta. Kasu horretan, sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren azterketa egingo du, 35. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Horretarako, sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria eskatu ahal izango dio ingurumen-organoari, 34. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Proiektuak ez duela kalte adierazgarriak eragingo ingurumenean, ingurumen-inpaktuaren txostenean ezarritakoari jarraituz; txosten horretan, gutxienez ere, proiektuaren ezaugarriak eta ingurumenean sor litzakeen kalte adierazgarriak eragozteko hartzekoak diren neurriak azalduko dira.

c) Ezin dela eman ebazpenik oinarritzat hartuta proiektuak ingurumenean eduki litzakeen ustezko ondorio kaltegarriak, ingurumen-organoak ez baitaizka horretarako behar diren irizpen-elementu guztiak, eta prozedura amaituko dela eta jarduketak artxibatuko direla».

«8. Ingurumen-organoak luzapen-eskaerari buruzko erabakia hiru hilabeteko epean hartuko du, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Aurretik, ingurumen-organoak txostena eskatuko die gaia dela-eta eragindako administrazio publikoei, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egiteko baliatutako funtsezko elementuei buruz. Administrazio horiek hogeita hamar egun igaro aurretik eman beharko dute irizpena. Epe hori hamabost egun luzatu ahal izango da, behar bezala justifikatutako arrazoiak adieraziz gero; hamabost egun horietan, eskaera ebazteko epea etenda egongo da».

«9. Epe horretan ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren txostenaren indarraldiaren luzapenari buruzko erabakirik hartzen ez badu, luzapen-eskaera ezetsizat hartu beharko da».

9. artikulua. *Kilometro-plazaren aldi baterako definizioa.*

Aparteko neurri gisa, eskaintza nahitaz murrizteko neurriak indarrean dauden artean, txartelak eserlekua ematen duen trenetan, Interes Orokorreko Trenbide Sareko lineak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonaren B modalitateko gehikuntzaren likidaziorako (kanona hemen arautzen da: 38/2015 Legea, irailaren 29koa, trenbideen sektorearena, 97.5 2.b) artikulua), honako hau izango da kilometro-plaza: trenak egindako kilometroak trenbide-enpresak daukan baimenaren arabera merkatuan jar ditzakeen plazen kopuruaz biderkatzearen emaitza, kontuan hartuz une bakoitzean eskumena duten agintariek ezartzen duten bidaiarien arteko gehieneko distantzia.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena honako likidazio hauei aplikatuko zaie: COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik eskaintza nahitaz murrizteko neurrien indarraldia amaitu arte egiten diren likidazioei.

10. artikulua. *Trenbide-azpiegiturak administratzen dituzten entitateek edukitzaile handiak diren aldetik etxebizitzarako ez beste erabilera batzuetarako dituzten errentamenduak.*

Trenbide-sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legeak 22.1 artikuluan aipatzen dituen entitateek etxebizitzarako ez beste erabilera baterako errentatuta dauzkaten ondasun higiezin errentarietara errentaren luzamendua edo murrizketa adostu ahal izango dute COVID-19ak eragindako larrialdiaren ondorioz. Ados jarri aurretik, errentarietara eskaera aurkeztu beharko dute, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hilabete pasatu baino lehen.

11. artikulua. *Lan-eskaintza publikoa eta aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak gauzatzeko gaikuntzak luzatzea.*

1. Salbuespen gisa, lan-eskaintza publikoa (edo administrazio publikoen antzeko tresnak) eta aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu batzuk gauzatzeko aldi baterako gaikuntza, 2020ko ekitaldian amaitzekoa bada, 2021eko ekitaldira arte luzatuztat joko da. Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuetatik, zehazki, hauek gauzatzeko luzatuko da gaikuntza: Estatuaren 2017ko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.Bat.6 artikuluan eta Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren ekainaren 3ko 6/2018 Legearen 19.Bat.9 artikuluan aurreikusitakoak. Enplegu hori egonkortzeko, dagozkion hautapen-prozesuen deialdiak argitaratuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bateginak 70.1 artikuluan araututakoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bategina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

2. Halaber, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen da aurreko apartatuan aipatzen diren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak gauzatzeko egiten diren lan-eskaintza publikoak onartzeko eta dagokien aldizkari ofizialean argitaratzeko epealdia. Gainerako guztian, prozesu horiei kasuan kasuko aurrekontu-legean ezartzen diren baldintzak eta betekizunak aplikatuko zaizkie.

12. artikulua. *694 MHz-tik 790 MHz-ra bitarteko maiztasun-bandaren liberazioa.*

694 MHz-tik 790 MHz-ra bitarteko maiztasun-banda (bigarren dibidendu digitalaren maiztasun-banda) liberatzeko prozesua errege lege-dekretu honetan eta irailaren 21eko 391/2019 Errege Dekretuan ezartzen dena betez gauzatu da (391/2019 Errege Dekretuaren bidez, Lurreko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionala onartzen da eta bigarren dibidendu digitala liberatzeko zenbait alderdi arautzen dira).

694 MHz-tik 790 MHz-ra bitarteko kanalak, telebista digitalaren bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua ematen dutenek ustiatzen dituztenak, emanaldirik gabe utzi behar dira 2020ko urriaren 31rako, multiple digital edo irrati-maiztasuneko kanal guztietan eta tokiko telebisten eremu geografiko edo eskualde guztietan, eta ezin erabili izango dira ezta aldi batez ere telebista-seinaleen hargailu-instalazioak egokitzeko lanak errazago egiteko. Nolanahi ere, irrati-maiztasuneko kanal batzuen emanaldiak egun hori baino lehen amaitu ahal izango dira, ekainaren 21eko 391/2019 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan ezartzen denarekin bat etorritz.

Bere hartan mantentzen dira ekainaren 21eko 391/2019 Errege Dekretuak irrati-maiztasuneko kanalei eta multiple digitalei ezartzen dizkien biztanle-estalduraren helburuak, zehaztasun batekin: errege lege-dekretu horretan biztanleriaren estalduraren epealdiez ezartzen dena 2020ko urriaren 31rako bete beharko da.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Bidezko trantsizioko sistema-guneen kapazitatea.*

1. Harik eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak sarearen kapazitatea ebaluatzeko irizpideak onartu arte, eta eranskinean agertzen diren bidezko trantsizioko sistema-guneen sarbide-kapazitatea emateko prozedurak arautzeko eta prozedura horietako baldintzak ezartzeko, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak sistema elektrikoaren operadoreari eskatu ahal izango dio, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak hogeita bigarren xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorritz, sistema-gune horietako bakoitzaren kapazitatea kalkulatzeko.

2. Gune bakoitzaren kalkuluak egitean, sistemaren operadoreak kontuan eduki beharko ditu gunearen egoera zehatza eta hari eragiten dioten guneena. Sistemaren operadoreak beste irizpide batzuk ere erabiliko ditu analisisetan: zirkuitulaburreko potentziari eta sarearen egonkortasun estatiko eta dinamikoari lotutakoak. Halaber, sareko sistema-gune bakoitzaren analisisian sistemaren operadoreak bertan eragina izan lezaketen beste irizpide tekniko batzuk aplikatu ahal izango ditu, energia-iturri berriztagarrien teknologia ahalik gehien sartu ahal izateko eta sistemaren segurtasuna bermatzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. *Energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko sareetan gehienez egin daitezkeen inbertsioen mugak.*

1. Aparteko neurri gisa, 2020-2022ko aldiko hiru urteetako bakoitzean, sistemaren kargura ordainsaria jasotzeko eskubidearekin energia elektrikoa garraiatzeko sarean egin daitezkeen inbertsioa gehienez ere Espainiako barne-produktu gordinaren ehuneko 0,075 izango da, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak urte horretarako egindako aurreikuspenaren arabera.

Halaber, 2021-2026ko aldian, aurreko muga aplikatuko zaion urteko inbertsio-bolumenean ez dira sartuko nazioarteko interkonexioek eragindako inbertsioak; nolanahi ere, inbertsio horiek eskubidea emango dute ordainsaria jasotzeko elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sareetako sarbide-sarien bitartez.

Garraio-enpresa bakoitzari ordainsari-eskubidea ematen dion inbertsioen bolumena kalkulatzeko, Energia Elektrikoaren Garraioaren Jarduera ordaintzeko Kalkuluaren Metodologia ezartzeko abenduaren 27ko 1047/2013 Errege Dekretuak IV. kapituluan arautzen duena aplikatuko da.

Kontuan hartuko dira aurreko paragrafoetan sektoreko guztirako bolumenaz ezartzen diren berezitasunak. Sistemaren kargura ordainsaria jasotzeko eskubidearekin garraio-sarean egin daitezkeen inbertsioen gehieneko zenbatekoa —apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen dena— gehitzea edo ez gehitzea energia elektrikoa garraiatzeko sarearen 2021-2026ko aldiko planean aztertu beharko da.

2. Era berean, aparteko neurri gisa, 2020-2022ko aldiko hiru urteetako bakoitzean sistemaren kargura ordainsaria jasotzeko eskubidearekin energia elektrikoa banatzeko sarean egin daitezkeen inbertsioa gehienez ere Espainiako barne-produktu gordinaren ehuneko 0,14 izango da, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak urte horretarako egindako aurreikuspenaren arabera.

Banaketa-enpresa bakoitzari ordainsari-eskubidea ematen dion inbertsioen bolumena kalkulatzeko, Energia Elektriakoaren Banaketaren Jarduera ordaintzeko Kalkuluaren Metodologia ezartzeko abenduaren 27ko 1048/2013 Errege Dekretuak IV. kapituluaren arautzen duena aplikatuko da. Kontuan hartuko dira aurreko paragrafoan sektoreko guztirako bolumenaz ezartzen diren berezitasunak.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen den muga aplikatuko zaion inbertsioen gehieneko bolumena gehitu edo gutxitu ahal izango da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren agindu baten bidez, Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak hala erabakiz gero, gehieneko kopuru hori ekonomiaren benetako bilakaerara edo gerora sortutako gorabehera tekniko edo ekonomikoetara moldatzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Zertarako erabiliko den sektore elektrikoaren superabita.*

1. Abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 19. artikuluan ezartzen duena eta urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duena gorabehera, aparteko kasuetan sistema elektrikoaren diru-sarreraren superabita honako hauek estaltzeko erabili ahal izango da: 2019ko eta 2020ko ekitaldietako aldi baterako desorekak (horiek dute lehentasuna) eta diru-sarreraren eta kostuen desbideratze iragankorrak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren kopuruak eta kopuruok aplikatzeko modua eta epealdiak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren agindu baten bidez onartuko dira, Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak erabakia hartu ondoren.

Laugarren xedapen gehigarria. *Berriazko ordainsari-araubideari heltzen dieten eta ustiapen-kostuak funtsean erregaiaren prezioaren arabera dituzten instalazioei laguntzeko neurriak.*

1. Alarma-egoera indarrean dagoen aldiaren, ustiapen-kostuak funtsean erregaiaren prezioaren arabera dituzten instalazioen eragiketen ordainsariak hurrengo apartatuetan ezartzen denarekin bat etorri kalkulatu dira.

2. Eragiketen ordainsarien balioa kalkulatzeko, errege lege-dekretu hau onartzean indarrean dauden ordainsari-parametroak hartuko dira kontuan, honako hauek alde batera utzita: elektrizitatearen merkatuko prezioa eta CO₂/1446-aren emisio-eskubideen prezioa; izan ere, prezio horiek alarma-egoera indarrean dagoen aldirako zenbatetsiko dira. Era berean, berriazko ordainsari-araubidea ondo aplikatzeko behar izanez gero, aipatutako horiekin lotuta dauden ordainsari-parametroak eguneratuko dira.

3. Horrela kalkulatu den eragiketa-ordainsaria ezin da izan otsailaren 24ko TED/171/2020 Aginduan instalazio tipo bakoitzerako ezartzen dena baino gutxiago.

4. Aparteko kasuetan, artikulua honen eraginpeko instalazio tipoei 2020an aplikatuko zaizkien gutxieneko jarduneko eta jardun-atalaseko ordu baliokideen kopuruaren balioak otsailaren 24ko TED/171/2020 Aginduan ezartzen diren balioak baino % 50 gutxiago izango dira.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Portuetako estibatzaileen kudeaketarako sozietate anonimoak egokitzeko epealdia luzatzea.*

Portuetako estibatzaileen kudeaketarako sozietate anonimoak egokitzeko epealdia bi hilabete luzatzen da, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera. Epealdi hori maiatzaren 12ko 8/2017 Errege Lege Dekretuak ezartzen du, lehenengo xedapen iragankorrean (dekretu horrek aldatu egiten du salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzua emateko langileen araubidea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-576/13 auzigaiari buruz 2014ko abenduaren 11n emandako epaia betetzeko; 2009/4052 arau-hauste prozedura).

Luzapen hori portuetako estibatzaileen kudeaketarako sozietate anonimoak egokitzeko baino ez da; ez dauka inolako eraginik portuetako estibatzaileen sektorea egokitzeko laguntza bereziak emateko araubidean.

Seigarren xedapen gehigarria. *Nazioarteko bidaiarien osasun-kontrola.*

1. EASA/ECDC gidaleroen arabera ezartzen diren prebentzio-neurriak alde batera utzi gabe (EASA/ECDC ingelesezko siglak, hurrenez hurren, erakunde hauei dagozkie: Aire Segurtasuneko Europako Agentzia, eta Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolleko Europako Zentroa), Osasun Ministerioak zehaztuko du Espainiara hegazkinez edo itsasoz heltzen diren bidaiariei zer osasun-kontrol aplikatu behar zaizkien eta kontrol horiek norainokoak izango diren, eta berak edukiko du kontrol horiek egiteko ardura. Honelako neurriak izan daitezke, besteak beste: bidaiarien tenperatura neurtzea, dokumentu-kontrola egitea eta nola dauden begiz aztertzea.

2. Dokumentu-kontrolari dagokionez, Espainiako lurraldetik kanpoko aireportu edo portu batera doazen bidaiariei osasun publikoko formulario bat bete beharko dute. Formularioa nolakoa den eta nola aurkeztu behar den Osasun Ministerioko Osasun Publikoaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak ezarriko du.

Hori dela eta, bidaiaria-agentziek, bidaiaria-agentzia handizkariak, aire-garraioan edo itsas garraioan aritzen diren enpresek eta hegazkin-txartelak banaka edo bidaiaria konbinatu baten barruan saltzen dituzten agenteek Espainiara etortzeko txartelen salmenta-prozesuaren hasieran bidaiariei azaldu beharko diete nahitaez aurkeztu behar dutela osasun publikoko formularioa aireportura edo portura heldutakoan.

3. Osasun-kontrolaren arabera litekeena bada bidaiari batek COVID-19a edukitzea, edo osasun publikorako arriskutsua izan daitekeen beste patologiarekin bat, osasun-azterketa egingo zaio, beraren alderdi epidemiologikoen eta klinikoen berri jakiteko. Egiaztatzen bada bidaiariak COVID-19a daukala, edo osasun publikorako arriskutsua izan daitekeen beste patologiarekin bat, osasun-zentro batera eramateko protokoloak aktibatuko dira.

4. Hegazkin-bidaiari dagokionez, 1. eta 2. apartatuetan arautzen diren osasun-kontrolak aireportua kudeatzen duenarekin koordinatuta egin beharko dira. Aireportu-kudeatzaileek eta hegazkin-enpresek neurri horiek ezartzen lagundu beharko diete Osasun Ministerioari. Aena S.M.E. SAK kudeatzen dituen aireportuetan, lankidetzara horretarako kontuan edukiko da ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19a eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrienak) lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen duena.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Sarbide-baimenen eskaera berriak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik Gobernuak eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak hurrenez hurren abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 33. artikulua garatzen duten errege-dekretua eta zirkular arauemailea eman arte, sare-kudeatzaileek ez dute onartuko sarbide-baimena lortzeko eskaera gehiagorik energia elektrikoa sortzeko instalazioetarako, ez errege lege-dekretua indarrean ipini aurreko kapazitatea dela eta, ez geroago iraungitzean, iraungipenen edo beste inguruabar batzuen ondorioz liberatzen den kapazitatea dela eta.

Nolanahi ere, sare-kudeatzaileek honako eskaera hauek onartuko dituzte: errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean baimenak izapidetzeko eskumena daukan administrazioari sarbide-baimena izapidetzeko eskatzen den berme ekonomikoa ezarri dutela frogatzen duen agiria aurkeztu izanaren eskaerak.

2. Aurreko 1. apartatuaren lehen paragrafoan ezartzen dena ez zaie aplikatuko eskaera hauei:

a) Abenduaren 26ko 24/2013 Legearen hogeita bigarren xedapen gehigarrian (sarbide-baimenak eta konexio-baimenak ematea bidezko trantsizioa bermatzeko) arautzen diren sarbide-kapazitatea emateko prozeduretan aurkeztzen diren eskaerei.

b) Energia elektrikoa banatzeko sarera konektatuko diren autokontsumorako ekoizpen-instalazioen eskaerei.

c) Energia elektrikoaren kontsumitzaileen sarbide-baimenen eskaerei.

3. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik ez du edukiko ondoriorik garraio-sareko sarbide-eskaera berrietarako urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak (trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileen babeserako presako neurrienak) laugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenak.

Hala ere, errege-dekretu bidez irizpideak eta baldintzak ezarri ahal izango dira garraio-azpiestazioetan garraio-sarearen plangintzan berriaz adierazitakoak baino posizio gehiago jartzeko. Posizio gehigarri horiek plangintzan ezarritako eta inbertsio-planetan sartutako posizioak bezalakoak izango dira sarbide-baimenak emateko orduan.

Bigarren xedapen iragankorra. *Energia Efizientiaren Funts Nazionalari 2020. urtean egin beharreko ekarpenak.*

Aparteko neurri gisa, luzamendua ezartzen da sistemara behartutako mikroenpresek, enpresa txikiek eta enpresa ertainek (ETE) Energia Efizientiaren Funts Nazionalari egin beharreko ekarpenetan. Ekarpene horiek martxoaren 23ko TED/287/2020 Agindua ezartzen ditu. ETEen definizioa hemen finkatzen da: Batzordearen 651/2014/EB Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, adierazten duena zenbait laguntza kategoria bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta; I. eranskina, ETEen definizioa.

Luzamendu hori sistemara behartutako subjektu horiek 2021eko otsailaren 28ra arte egin beharreko ekarpenei aplikatuko zaie. Luzamenduari heldu nahi dionak ETEa dela frogatu beharko dio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiari, 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

Hirugarren xedapen iragankorra. *3. artikuluan xedatzen dena aplikatzea abian diren administrazio-baimenei.*

3. artikulua bigarren apartatutik zortzigarrenean bitartean ezartzen dena hauei aplikatuko zaie: errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean izapideak hasi gabe dauzkaten instalazioei edo eskaera eginda egon arren errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean informazio publikoaren izapidea egin gabe dagoen eta eraginpeko administrazioei, erakundeei eta enpresei txostenak eskatu ez zaizkien egoeran daudenei.

Azken xedapenetako lehena. *Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea aldatzea.*

Letra bat gehitzen zaio Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 13.3 artikuluari, n) letra; hona:

«n) Sektore elektrikoaren kostu arautuen likidazioak egiteko ardura daukan erakundeak kudeatzen dituen kontuek eragiten dituzten gastuak, honako kasu honetan izan ezik: kostu horiek kontuan dena delako eskubidearen titularraren alde dagoen saldotik kendu behar direnean. Diru-sarreraren superabitak kontuan eragiten dituen gastuak kontuan dagoen saldotik kenduko dira».

Azken xedapenetako bigarrena. *Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurrien abenduaren 30eko 66/1997 Legea aldatzea.*

Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurrien abenduaren 30eko 66/1997 Legearen 79. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

«79. artikulua. *Bidezko Trantsiziorako Institutua organismo autonomoaren xedea.*

Bidezko Trantsiziorako Institutua organismo autonomoaren xedea da neurriak zehaztea eta hartzea tratamendu bidezkoa eta solidarioa bermatzeko karbono urriko ekonomia ekologikoago baterako trantsizioak eragiten dien langileei eta lurraldeei, trantsizio horrek lurralde horietako enpleguan eta haien despopulazioan duen eragin kaltegarria minimizatuz».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Espainiako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemako dagokion finantzaketa-agente publiko estatalaren zuzendaritzaren titularraren ebazpen baten bidez, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.b) eta 28.1 artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritik, zuzenean eman ahal izango dira dirulaguntzak honako norgehiagoka-deialdi hauen ondorioz prestatzen diren ikerketa zientifiko edo teknikorako edo berrikuntzarako proiektuak egiteko:

a) Europar Batasunaren urte anitzeko esparru-programaren barruan Batasuneko zenbait estatuk Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 182., 185., 186. eta 187. artikuluetan xedatzen denaren itzalpean sortutako azpiegituren deialdi publikoak, eta Europako ikerkuntza eta berrikuntzarako esparru-programaren barruan sortutako elkarteek prestatzen dituztenak.

b) Ikerketa eta berrikuntzarako laguntzen norgehiagoka-deialdi publikoak, honako ezaugarri hauek dauzkatenak: onuradunak nor diren erabakitzeko, parekide-ebaluaziorako nazioarteko estandarrak aplikatzen dira, eta dirulaguntzak Espainiak edo Espainiako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemako finantzaketa-agente estatalek sinatutako nazioarteko itun edo akordioen arabera sortutako egiturek kudeatzen dituzte».

Azken xedapenetako laugarrena. *Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea ibilgailu elektrikoetan, jasangarrietan edo konektatuetan egiten diren inbertsioak amortizatzeako askatasunari dagokionez.*

Hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeari; 2020. urtean egiten diren inbertsioei aplikatuko zaie. Hona testua:

«Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Ibilgailu elektriko, jasangarri eta konektatuen balio-katean egiten diren inbertsioak amortizatzeako askatasuna.*

1. Automobilaren sektoreko ibilgetu materialeko elementu berrietan egiten diren inbertsioak, ekoizpen-katea sentsorizatzea eta monitorizatzea eta plataforma modularretan oinarritutako fabrikazio-sistemak ezartzea edo ingurumenaren gaineko eragina murriztea badakarte, nahierara amortiza daitezke, elementu horiek zergadunaren esku 2020. urtean jarriz gero, eta baldin eta elementuok lanean ipintzen diren zergaldiaren hasieratik 24 hilabete pasatu arte entitatearen 2019. urteko batez besteko plantilla mantentzen bada.

Ondasun higieziinei ezin zaie aplikatu xedapen honetan arautzen den amortizatzeako askatasuna.

Amortizatzeako askatasuna aplikatu ahal zaien inbertsioen zenbatekoa mugatuta dago: 500.000 euro gehienez.

Enpresako batez besteko plantilla osoa kalkulatzeko, enplegatutako pertsonak hartuko dira aintzat, lan-arloko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik, kontuan hartuta lanaldi osoaren aldean kontratatutako lanaldia.

Lanean ipintzen direnetik aplikatu ahal izango zaie amortizatzeko askatasuna nahierara amortiza daitezkeen elementuei. Betiere, 2021. urtea amaitu baino lehen ipini beharko dira funtzionamenduan.

2. Xedapen honetan arautzen den amortizatzeko askatasuna aplikatu nahi duten zergadunek Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren txosten arrazoitua aurkeztu beharko dute, inbertsioa gaitzat jotzeko egindakoa. Txosten hori loteslea izango da zerga administrazioarentzat.

Txostena elementua funtzionamenduan ipini ondoko hilean eskatu beharko du zergadunak, eta organo eskudunak eskaera jasotzen duenetik bi hilabete pasatu baino lehen eman beharko du.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak apartatu honetan aipatzen diren txosten arrazoituak emateko prozeduran, azaroaren 21eko 1432/2003 Errege Dekretuan xedatzen dena aplikatuko da, xedapen honetan ezartzen denaren aurka egon ezean (1432/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Baldintza zientifiko eta teknologikoak betetzeari buruzko txosten arrazoituak egitea arautzen duena ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueren ondoriozko kenkari fiskalak aplikatzeko eta interpretatzeko).

Sozietatearen gaineko zergaren aitortpena aurkezten denerako Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak ez badu egin apartatu honetan aipatzen den txostena zergadunari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik, zergadunak xedapen honetan arautzen den amortizatzeko askatasuna aplikatu ahal izango du behin-behinean, baldin eta txostena lehen adierazitako epealdiaren barruan eskatu badu. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak uste badu inbertsioari ezin zaiola aplikatu amortizatzeko askatasuna, zergadunak, txostena jakinarazten den zergaldiko kuotarekin batera, kendutako gehiegizko kopuruak sortuko zuen kuota osoa ere ordaindu beharko du, bai eta dagozkion berandutze-interesak ere.

3. Plantillari eusteko betebeharra betetzen ez bada xedapen honen 1. apartatuan arautzen den bezala, zergadunak kendutako gehiegizko kopuruak sortuko zuen kuota osoa eta horri dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko ditu. Betebeharra bete ez den zergaldiko autolikidazioarekin batera ordaindu beharko dira kuota osoa eta berandutze-interesak.

4. Lege honen 101. artikuluan ezartzen denaren arabera VII. tituluaren XI. kapituluan enpresa txikietarako ezartzen diren zerga-pizgarrietako bat aplikatzen zaien entitateek bi aukera edukiko dituzte amortizatzeko askatasunaren araubidea aplikatzeko: lege honen 102. artikuluan ezartzen den araubidea aplikatu edo, bestela, xedapen honetan arautzen dena».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 13., 22., 23. eta 25. zenbakietan Estatuari ematen zaizkion eskumen eskusiboaren babesean ematen da. Zenbaki horietan, hurrenez hurren, gai hauen gainean esleitzen zaizkio eskumen eskusiboak: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; instalazio elektrikoaren gaineko legegintza, eta horietarako baimena ematea, horien aprobetxamenduak beste autonomia-erkidego bati eragiten dionean, edo energia hori dagozkion lurralde-eremutik kanpora garraiatzen denean; ingurumena babesteko oinarritzko legedia (nolanahi ere, autonomia-erkidegoek ahalmena izan dezakete babeserako arau gehiago emateko); eta meatze- eta energia-araubidearen oinarriak.

6. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 14. zenbakien babespean ezartzen da; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, eta ogasun publikoa eta Estatuaren zorra.

7. artikulua Konstituzioaren 149.1.14 artikulua babespean ezartzen da; artikulua horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka ogasun publikoaren gainean.

9. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13., 14. eta 21. zenbakien babespean ezartzen da; horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; ogasun publikoa eta Estatuaren zorra; eta autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak zeharkatzen dituzten trenbideak eta lurreko garraioak.

10. artikulua Konstituzioaren 149.1. artikulua 13., 21. eta 24. zenbakietan xedatzen denaren babespean ezartzen da; horien arabera, Estatuak eskumena dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: «jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa», «autonomia-erkidego batetik baino gehiagotatik igarotzen diren trenbideak eta lurreko garraioak» eta «interes orokorreko obra publikoak edo autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten dieten obra publikoak».

11. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 18. zenbakien babespean ematen da; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; eta herri-administrazioetako araubide juridikoari eta horietako funtzionarioen estatutu-erregimenari buruzko oinarriak.

12. artikulua Konstituzioaren 149.1.21 artikulua babespean ematen da; horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka telekomunikazioen arloan.

Bosgarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1 artikulua 7., 14. eta 20. zenbakien babespean ezartzen da; zenbaki horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako gai hauen gainean, hurrenez hurren: laneko legeria; Estatuko Ogasuna, eta interes orokorreko portuak eta nabigazio zibila.

Seigarren xedapen gehigarria, berriz, Konstituzioaren 149.1.16 artikulua arabera Estatuak kanpoko osasunaren arloan daukan eskumen eskusiboaren itzalpean ematen da.

Azken xedapenetako hirugarrena Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babespean ezartzen da; izan ere, horren arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka administrazio-prozedura erkidean, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik datozen berezitasunak.

Errege lege-dekretu honen bidez aldatzen diren arauak beretan aipatzen diren eskumen-tituluen babespean segitzen dute.

Azken xedapenetako seigarrena. *Europar Batasuneko Zuzenbideko arauak txertatzea.*

Errege lege-dekretu honen bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 Zuzentaraua, Batasuneko elektrizitatearen merkatuari buruzko arau orokorrak ezarri eta 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duena, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen da. Modu partzalean txertatzen da; energia biltegitzeari eta agregazioari dagokionez, hain zuzen.

Horrez gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko (EB) 2018/2001 Zuzentaraua txertatzen da, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoan. Modu partzalean txertatzen da; energia berriztagarrien erkidegoei dagokionez, hain zuzen.

Azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko (EB) 2018/2002 Zuzentaraua txertatzen da Espainiako ordenamendu juridikoan, energia-efizientziari buruzko 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duena. Modu partzalean txertatzen da; energia-efizientziako betebeharren sistema nazionalaren indarraldiari dagokionez, hain zuzen.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Zenbait erregelamendu-xedapenen maila babestea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean ipini ondoren bertan aldatzen diren erregelamendu-arauetako bat aldatu nahi izanez gero, aldaketa errege-dekretuaren mailako arauen bitartez egin ahal izango da; batez ere, hauek aldatzeko badira: 3. artikuluan eta hirugarren

xedapen iragankorrean arautzen den aldaketa, zeinak 1955/2000 errege Dekretuaren aldaketari buruzkoak baitira (1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak eta energia elektrikoaren garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta horniketa-jarduerak arautzen dituen), edo 12. artikulua, zeina 694 MHz-tik 790 MHz-ra bitarteko maiztasun-bandaren liberazioari buruzkoa baita.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta arauak emateko gaikuntza.*

1. Gobernuari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu honetan arautzen dena garatzeko, aplikatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak onartzeko.

2. Hain zuzen ere, Gobernuari baimena ematen zaio erregelamendu bidez 3. artikulua, I. eta II. eranskinak eta 1.1 artikuluan ezartzen diren epealdiak aldatzeko (salbuespena: errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean sarbide-baimena edo sarbide- eta konexio-baimena eskatuta edo jasota daukaten instalazioak) eta 4. artikuluan ezartzen dena garatzeko. Behin betiko ustiatzeko administrazio-baimena lortzeko epealdia ezin izango da aldatu erregelamendu bidez.

3. Gobernuak eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen onartuko dituzte abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 33. artikuluan ezartzen dena garatzeko eta betearazteko behar diren erregelamendu-xedapen guztiak, beren eskumeneko eremuan.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hala ere, seigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena indarrean egongo da harik eta Gobernuak adierazi arte COVID-19ak eragindako osasun-krisia amaitu dela. Gobernuak arrazoiak azalduz eta eskura dagoen ebidentzia zientifikoa oinarritzat hartuz egingo du hori, Osasun Alerta eta Larrialdien Koordinazio Zentroak txostena egin ondoren, eta ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrienak) 2.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Madriren, 2020ko ekainaren 23an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

«ERANSKINA

Bidezko trantsizioko sistema-guneen zerrenda

<i>Garraio-sareko guneak</i>
Carrío 220 kV.
Compostilla 220 kV.
Compostilla 400 kV.
Guardo 220 kV.
La Robla 400 kV.
Lada 400 kV.
Lancha 220 kV.
Litoral 400 kV.
Meirama 220 kV.
Montearenas 400 kV.
Montearenas 220 kV.
Mudejar 400 kV.
Narcea 400 kV.
Pinar del Rey 400 kV.
Pinar del Rey 220 kV.
Puentes García Rodríguez 400 kV.
Puertollano 220 kV.
Soto Ribera 400 kV.
Soto Ribera 220 kV.
Velilla 400 kV.
Garoña 400 kV.
Garoña 220 kV.